



(AJA)

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

CPM CONSERVATORIO ESCUDERO MKP

2017-2018 Ikasturtea



- 1. OINARRI JURIDIKOA ETA ARAUTEGIA.**
- 2. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALEKO ANTOLAKUNTZAREN DEFINIZIOA.**
 - 2.1. XEDAPEN OROKORRAK.**
 - 2.2. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK.**
 - 2.2.1. ORDEZKAPEN ORGANU GORENA, OOG.
 - 2.2.2. IRAKASLEEN KLAUSTROA.
 - 2.2.3. ZUZENDARITZA TALDEA.
 - 2.3. LAGUN BAKARREKO AGINTE ORGANOAK.**
 - 2.4. IRAKASKUNTZARAKO KOORDINAZIO ORGANOAK.**
 - 2.4.1. DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK
 - 2.4.2. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA.
 - 2.4.3. TUTOREAK ETA IRAKASLE TALDEAK.
- 3. KONTSERBATORIOKO JARDUEREN ANTOLAKUNTZA ETA PLANIFIKAZIO BALIABIDEAK.**
 - 3.1. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK.**
 - 3.1.1. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANU BEREZIAK.
 - 3.1.2. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK.
 - 3.2. DOKUMENTAZIOA.**
 - 3.3. IKASLEEN ANTOLAMENTSU ETA HEZKUNTZA JARDUERAREKIN ERLAZIONATUTAKO ALDERDIAK.**
- 4. BIZIKIDETZARAKO ARAUAK.**
 - 4.1. XEDAPEN OROKORRAK.**
 - 4.2. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA.**
 - 4.3. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK.**



- 5. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJETIBOA.**
- 6. KONTSERBATORIOKO MATERIALAK ETA AZPIEGITURAK ERABILTZEKO ARAUDI ERREGULATZAILEA.**
 - 6.1. JANGELA.**
 - 6.2. ARMAIRUAK.**
 - 6.3. INSTRUMENTUAK.**
 - 6.4. INSTRUMENTU BEREZIAK ALOKATZEKO ARAUDIA.**
 - 6.5. KONTSERBATORIOKO PIANOAK ERABILTZEKO ARAUDIA.**
 - 6.6. GUNEA (GELAK eta ARETOAK).**
 - 6.7. ERANSKINAK.**
- 7. AJA BERRIKUSTEKO PROZEDURA.**
- 8. AZKEN XEDAPENA: AJAREN HEDAPENERAKO PROZEDURA.**

1. OINARRI JURIDIKOA ETA ARAUTEGIA.

1.1. Arautegi honek honako lege eta dekretuak ditu oinarri juridiko bezala:

Euskal Eskola Publikoko 1/1993 LEGEA

Hezkuntzako 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 LEGE organikoa (2006ko maiatzaren 4ko BOE, 106 zenbakia).

2006ko abenduaren 22ko 1577/2006 Errege DEKRETUA. Honen bidez maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoa musika ikaskuntza profesionaleko oinarriak erregulatu dira (2007ko urtarrilaren 20ko BOE, 18 zenbakia)

250/2005 DEKRETUA, irailaren 20koa, musika-ikasketen oinarriko maila eta maila ertainaren curriculum eta maila horietara nola iritsi ezarri dituen.

229/2007 DEKRETUA, abenduaren 11koa. Honen bidez ezartzen da musika-ikasketa profesional curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak (EHAA - 2008ko martxoak 13, osteguna)

AGINDUA, 2014ko urtarrilaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, musika-ikasketa profesionalean sartzeko probak eta onartzeko prozedura arautzekoa.

Erkidegoko Hezkuntzako Agintari Aginpidedunaren Urteroko indarreko EBAZPENA, Euskal Hezkuntza Administrazioaren Titulartasuna duten Kontserbatorioetako Barne Antolaketa

194/2010 DEKRETUA, uztailaren 13koa. Honen bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasgai jakin batzuen eta Musika eta Dantza Ikasketa Profesionaleko zenbait ikasgaien arteko baliozkotzeak ezartzen dira.

258/1996 DEKRETUA, 1996ko azaroaren 12koa, Euskal Autonomi Elkarte ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duena.

11/2007 DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena Hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautu duen Dekretua aldatzen duena.

Otsailaren 10eko 66/1987 DEKRETUA Euskadiko Autonomia Elkarte ikasleen Guraso Elkarteak arautzen dituen.

201/2008 DEKRETUA, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa.

4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa

118/1998 DEKRETUA ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbaker eta integratzailearen esparruan antolatzen duena. (EHAA - 1998ko uztailak 13, 130 zenbakia).

51/2003 LEGEA, abenduaren 2koa, desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasuna, diskriminazio eza eta eskuragarritasun unibertsalarena. (2003ko abenduaren 3ko BOE, 289 zenbakia).

Abenduaren 13ko 15/1999 LEGEA Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa.

76/2008 DEKRETUA, maiatzaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-erakin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden jardueretarako erabiltzeko prozesua arautzen duena.

30/1992 LEGEA, azaroaren 26koa, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoa eta Administrazio Prozedura Komuna

7/2007 LEGEA, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuarena

EBAZPENA, 2004ko maiatzaren 21ekoa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, "Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako" hitzarmen kolektiboaren erregistra eta argitara dadila xedatzen duena. (EHAA - 2004ko ekainak 17, osteguna).



1/2011 LEGEA, otsailaren 3koa, Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko Legearen hirugarren aldaketarena).

EBAZPENA, 2017ko apirilaren 3koa, Hezkuntza sailburuordearena ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena

1.2. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALAREN izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak.

1.2.1. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALA musika irakaskuntza arautuko eskolak, oinarrizko eta profesional mailatan, ematen dituen irakastegi publikoa da. Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago. Ikastetxe horrek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.

1.2.2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALAK ezaugarri hauek ditu: plurala da, elebiduna da, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturalean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.

1.2.3. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALAK bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.

1.2.4. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALAK, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

2. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALEKO ANTOLAKUNTZAREN DEFINIZIOA

2.1. XEDAPEN OROKORRAK.

2.1.1. Aginte-organoak

2.1.1.1. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALAK Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusi diren taldeko aginte-organoak nahiz lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu. Organo, horiek EEPLn ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango dituzte.

- a. Taldekoak: Ordezkapen Organu Gorena (OOG), irakasleen klaustroa eta zuzendaritza taldea.
- b. Lagun bakarrekoak: zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria.

2.1.1.2. Ikasturte bakoitzean ikastetxean dagoen ikasle kopuruaren arabera eta ikasturteko Antolakuntza Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorritik, arestian aipatutakoez gain, mintzagai dugun ikastetxeak beste lagun bakarreko aginte-organo batzu izan ditzake, ebazpenean azaltzen diren kompetentzia eta funtzioekin eta aurreko ataleko organuek bere esku uzten dizkietenak.

2.1.2. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza.

2.1.2.1. OOGren bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazio langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalek FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALAREN kudeaketan parte har dezakete.

2.1.2.2. Badira FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALAREN jardunean parte hartuko duten beste organo espezifiko batzuk. Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztutakoari jarraiki, gurasoen batzarrak eta ikasleen parte hartze-organoek mintzagai dugun ikastetxearen kudeaketan parte hartuko dute.

2.1.2.3. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALA ikastetxeko ikasle- nahiz guraso-elkarteen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkie elkarte



horiei haien jarduera gauzatu dezaten. Horrez gain, elkarteek ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak bultzatuko ditu, baina betiere berezko infrastrukturek eta jarduera akademikoak ezartzen dituzten mugekin.

2.1.3. Koordinazio didaktikorako organoak. Tutoretzak, departamentu didaktikoak eta Koordinazio Pedagogikorako Batzordea, klaustroaren zuzendaritzapean, FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALEko koordinazio didaktikorako organoak izango dira.

2.1.4. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak.

2.1.4.1. Ikastetxeko aginte-organoei, partaidetza-organoei eta koordinazio didaktikorako organoei zainduko dute ikastetxeko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoei, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.

2.1.4.2. Horrez gain, aginte-organoei, partaidetza-organoei eta koordinazio didaktikorako organoei bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.

2.1.4.3. Mintzagai ditugun organoei, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

2.2. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK.

2.2.1. ORDEZKAPEN ORGANU GORENA, OOG.

2.2.1.1. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALEko OOGren ezaugarriak eta osaera.

2.2.1.1.1. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALEko Ordezkapen Organu Gorenaren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiek hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan. Organo horrek OOG izena hartuko du.

2.2.1.1.2. OOGren eskumenak.

- a. Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, antolakuntza eta iharduera araudia eta kudeaketa proiektua onartzea, bete daitezen begiratzea eta 1-1993 Legearen 28.3 atalak agintzen duenaren arabera ebaluazioa egitea.
- b. Ikastetxearen urteko plana onartzea, araudi honen 13. artikuluan klaustroaren funtzioei dagokionaren kaltetan gabe.
- c. Prestakuntza ihaurdueren, eskolaz kanpo eta urteko kudeaketa-egitarua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa bere gain hartuz.
- d. Ikastetxearen urteko txostena onartzea.
- e. Ikastetxeko zuzendaria hautatzeko prozesuan parte hartzea. Kideen bi hereneko gehiengo onartuta, zuzendariaren izendapena ezeztatzeko proposatzea, karguari dagozkion funtzioak betetzen ez badira.
- f. Ikasleen onarpenari buruz erabakitzea, indarrean dagoen aruategia erabiliz.
- g. Bizikidetzaren arloko neurri zuzentzaileak ezagutzeko eta berrikusteko, ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzten arauen arabera.
- h. Kultura eta hezkuntza helburuekin lankidetzaren harremanak eduki beste ikastetxeekin.
- i. Eskolako instalazio eta ekipamendua berritzea eta horien iraupena zaintzea.
- j. Eskolako iharduera gainbegiratzea administrazio eta hezkuntza arloetan.



- k. 1-1993 Legeak edo beste arau batzuek, edo ikastetxearen antolakuntza eta iharduera arautegiak ematen dioten beste edozein aginpide.

2.2.1.1.3. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALeko OOG (EEPLko 32.2 artikulua) ondoko hauek osatuko dute

- a. Zuzendaria, OOGko buru izango dena.
- b. Ikasketaburua.
- c. Klaustroak aukeratuko dituen 10 irakasle.
- d. Ikasleen gurasoen 8 ordezkari.
- e. Ikasleen 7 ordezkari.
- f. Administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- g. Udaleko ordezkari bat.
- h. Ikastetxeko idazkaria. OOGko idazkari izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.

2.2.1.1.4. OOG hautestea eta berritzea. Bi urtetan behin, OOGko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

OOGan parte hartu ahal izateko baldintzak amaitzen direlako OOGko partaide bat baja bada, ordezkatzeko duen taldeko beste partaide batek ordezkatzeko du, hauteskundeetan ezarri den ordena jarraituz.

2.2.1.1.5. Zuzendaria eta idazkaria aldatzea. Zuzendaria kanpoan bada, zuzendariordea izango da ikastetxeko buru. Ikastetxean zuzendariorderik ez badago, ikastetxeko zuzendari ikasketaburua izango da edo, hala badagokio, antzinatasunik handien duen ikastetxeko OOGko irakaslea.

Idazkariorderik egon ezean, ikastetxeko OOGko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

2.2.1.2. OOGren funtzionamendu-erregimena.

2.2.1.2.1. OOGren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die OOGko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespina. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.

2.2.1.2.2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.

2.2.1.2.3. OOG hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez. OOG bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo OOGko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. OOGko kide guztiak derrigor joan beharko dute OOGren bileretara.

2.2.1.2.4. OOGk gehiago soilez hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:

a. Hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AJA nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiago osoz onartuko dira.

b. Zuzendaria errebokatze proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.

2.2.1.2.5. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren OOGri buruzko auziak ebazteko, administrazio-jardunbidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoa beteko da.

2.2.1.2.6. OOGko kideek deialdi batera joaterik ez dutenean, eta bozketarik balego, bere botua, idatziz, OOGko beste kide baten esku utz dezakete.

2.2.1.3. OOGko batzordeak.

- 2.2.1.3.1. OOG batzorde iraunkorra izango da. OOGk EEPLko 36.3 artikuluan zehaztu diren funtzioak beteko ditu, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOG ondoko kide hauek osatuko dituzte: zuzendariak, ikasketaburuak, irakasle batek, ez-irakaslegoaren ordezkioak, ikasleen guraso batek eta ikasle batek –sektore bakoitzean aukeraturikoak–. Organo horrek gehiengoz hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez.
- 2.2.1.3.2. Bizikidetzat Batzordeak OOGren osaera bera izango du eta, haren moduan, boto haztatuaren sistema erabiliko. Bizikidetzat Batzordeak bi funtzio nagusi izango ditu. Batetik, ikastetxean bizikidetzarako giro egokia egotea zaintzea. Bestetik, bizikidetzaren aurkakoak diren eta bizikidetzarentzat larri kaltegarriak izan daitezkeen jokabideak zuzentzeko neurriak ezagutzea, aplikatzea eta berrikustea.
- 2.2.1.3.3. Aipatu berri dugun batzordeaz gain, Ekonomia Batzordea ere sortuko da. Batzorde horrek aurrekoaren osaera berbera izango du. Bere egitekoa: agintzen zaizkion auziei buruz OOGri informazio ekonomikoa ematea..
- 2.2.1.3.4. OOGk auzi zehatzez arduratuko diren batzordeak sor ditzake. Batzorde horiek sortzeko erabakian haien esku utzi diren eskumenak izango dituzte eta erabakian ezarri bezala sortuko dira. Sortzen diren batzorde guztiek –artikulu honetako lehen hiru paragrafoetan zehaztu direnak barne– azterketak, txostenak eta proposamenak egin ditzakete beren eskumenekoak diren gaiei buruz. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan, indarrean dauden arauak betetzearekin lotura duten zenbait gai aztertu dira. Arauetan aurreikusi diren kasu zehatz horietan izan ezik, sortu diren batzorde bereziek erabakiak har ditzakete. Horretarako, berariazko eskumena behar dute eta batzorde iraunkorra nahiz bizikidetzat-batzordearen moduan osaturik egon, hau da, OOGko osaerarekiko proportzionalak izan behar dira. Batzorde berezien esku, beraz, gehiengo soiluz ebatz daitezkeen erabaki guztiak utz daitezke.
- 2.2.1.3.5. Azpiegitura Batzordea: ikastetxeko azpiegitura larria, eskasa, eta zaharkitua kontutan izanik, arazo honi aurre egiten dion batzorde bat eratuko da.

2.2.2. IRAKASLEEN KLAUSTROA.

- 2.2.2.1. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera.
 - 2.2.2.1.1. Irakasleen klaustroa, FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALeko aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorenena da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.
 - 2.2.2.1.2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALeko idazkaria klaustroko idazkari izango da ere.
 - 2.2.2.1.3. Zuzendaririk egon ezean, ikasketaburuak izango da klaustroko buru. Eta zuzendaririk nahiz ikasketabururik ez badago, antzinasunetik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.
- 2.2.2.2. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena.
 - 2.2.2.2.1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.
 - 2.2.2.2.2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara..
 - 2.2.2.2.3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenez egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.



- 2.2.2.2.4. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioako Prozedura Erkidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluaren ezarritakoari jarraituko dio klaustruak.
- 2.2.2.3. Klaustruaren eskumenak. EEPLko 35. artikuluan eta indarrean dauden beste xedapen batzuetan, irakasleen klaustruaren funtzioak zehaztu dira.
- Ikastetxearen ikasketa-proiektua eta irakaskuntza -ihardunen egitaraua egin eta onartzea, OOGk irizpidea eman ondoren; organo horrek erabakiko du ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasotako arteztarauen egokitasunaz.
 - Irakaskuntza-ihardueren egitarauaren betetze-mailaren berri ematea OOGri, eta urteko txostena egitea.
 - Ikasleak ebaluatu eta errekuaraketarako lanari buruzko irizpideak ezarri eta eta koordinatzea.
 - Ikaslegoaren bideratze-eginkizunak eta tutoretza planifikatzea eta zuzentzea.
 - Ikastetxean garatu behar diren pedagogiazko saiotarako edo ikerketarako ekinbideak sustatzea.
 - Ikastetxearen iharduera-arauak onartzea..
 - Irakaslegoaren prestakuntzari dagozkionetan prestakuntza-ihardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrikoen egitarauari buruzko txostena egitea, 8.3 atalean erabaki bezala egin, eta OOGk onartu baino lehen.

2.2.3. ZUZENDARITZA TALDEA.

2.2.3.1. Zuzendaritza taldea.

2.2.3.1.1. Pertsona bakarreko agente-organoei FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALEko zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiek modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.

2.2.3.1.2. Zuzendaritza taldeak EEPLko 36. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioak izango ditu baita OOGk edo irakasleen klaustruak bere esku uzten dituenak ere.

- Ikastetxearen zuzendaritza eta koordinaziorako irizpideak erabakitzeko eta iharduerari begira garrantzi handiagoko erabakiak hartzeko orduan zuzendariari laguntzea.
- Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-ihardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrikoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua gauzatzea, OOGk onartu ditzan.
- Aurreko puntuan adierazitako programen burutzapena zaintzea eta koordinatzea, eta horien betetze-mailaren berri ematea OOGri urteko txostena onartu dezan.
- Urteko txostenaren zirriborroa egitea, OOGk eztabaida dezan.
- Ordezkaritza-organoren gorenari euskal eskola publikoko beste zenbait ikastetxerekin lankidetzaren harremanak izateko proposamena egitea eta, halaber, kultura eta hezkuntza xedez, erakundeekin itunak izenpetzeko proposamenak egitea, organo horrek, egoki baderitza, hezkuntza-administrazioari aurkez diezazkion.
- Irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren ihardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran.

2.2.3.1.3. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitza, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utzi ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku.

2.2.3.1.4. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALEan, pertsona bakarreko organo hauek osatuko dute derrigorrez zuzendaritza taldea:

- Zuzendaria.
- Ikasketaburua.



c. Idazkaria.

Zuzendaritza taldeak beharrezkotzat hartuko balu, zuzendari-ordea izendatuko luke.

2.3. LAGUN BAKARREKO AGINTE ORGANOA.

2.3.1. ZUZENDARIA.

2.3.1.1. FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALeko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da.

2.3.1.2. Zuzendariak EEPLko 34. artikuluan ezarri diren eskuduntzak eta eskumenak ditu:

- a. Ikastetxearen ordezkari izatea, ikastetxean hezkuntza Administrazioa ordezkatzeko eta Administrazio horri hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.
- b. Ikastetxearen jardura guztiak zuzentzea eta koordinatzea, irakasleen klaustroari eta OOGri esleitutako eskumenak aparte utzi gabe.
- c. Zuzendaritza pedagogikoa gauzatzea, hezkuntza berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.
- d. Legeen eta indarrean dauden gainerako xedapenen betetzea bermatzea.
- e. Zihurtagiri eta dokumentu ofizialak bisatzea.
- f. Kontserbatorioaren jardueran eragina duten arau, xedapen, proiektu, plangintza eta hitzarmenak bete araztea.
- g. Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea.
- h. Irakasle eta ez-irakasle guztien, hala nola, ikasle eta ikasleen gurasoen bilera eskubidea erraztea, hala nola kontserbatorioaren bizitzari buruzko informazioa bermatzea.
- i. Instituzio publiko edo pribatuetan bere presentzia edo errekonozimendua eskatzen denean, kontserbatorioa ordezkatzeko dutenak izendatzea.
- j. Eragingarritasun edo bestelako arrazoiengatik, gai espezifikoaren tramite eta gestioak burutzeko, beste pertsonatan delegatzea.
- k. Arauz ezartzen diren aurreikuspenak jarraiki, bere gastu autorizazioa eta ordainketen antolaketarako kompetentzia, Idazkarian edo kontserbatorioko administrazioan delegatzea.
- l. Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea, gatazkak konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean dagoen arandia beteta, gai honetan ordezkari-organoren gorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe. Horretarako, ikastetxeetan gatazkak konpontzeko prozedurak bizkortzea sustatuko da.
- m. Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana sendotzeko, familiekin, erakundeekin eta organismoekin lankidetzat bultzatzea, eta eskolagiroa sustatzea, ikasleek jakintzetan eta balioetan prestakuntza integrala jasotzeko eta ikasketahiturak sustatzeko lagungarri izan daitezkeen jardun guztiak garatze aldera.
- n. Ikastetxearen barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.
- o. Ikastetxeko ordezkari-organoren eta irakasleen klaustroaren egintza akademikoetarako eta bilkuretarako deialdia egitea, egintza-bilkura horiek zuzentzea eta aipatutako erakundeek beren eskumenen eremuan hartutako erabakiak betearaztea eta betetzen diren zaintzea.
- p. Lege honen 63. atalak aipatzen dituen obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioak egitea, gastuak baimentzea ikastetxearen urteko kudeaketaprogramarekin bat etorriz,



ordainketak agintzea eta ikastetxearen ziurtagiriei eta dokumentuei oniritzia ematea, hori guztia araudi bidez ezarritakoari jarraiki.

- q. Hezkuntza gaietan eskumena duen sailari ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideen izendapena eta kargu-uztea proposatzea, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenari jakinarazi ondoren.
- r. Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak esleitzen dizkion guztiak, beste arau batzuk esleitzen dizkionak eta ikastetxearen antolaketa eta jardunbiderako erregelamenduak ezartzen dizkionak.

2.3.2. IKASKETABURUA.

Ikasketaburuak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, EEPLren 41. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Ikasketaburuak, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

- a. Irakaskuntzako iharduerak koordinatzea.
- b. Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- c. Irakasle bakoitzari ikastetxeko gela bat edo gehiago izendatzea, 36.2f) atalean araututakoari jarraiki.
- d. Zuzendaria eta zuzendariordea ordezkatu biak ez daudenean.
- e. Ikasketa-programazioak berrikusi.
- f. Klaustroak ikasketa –programazio horietan ezartzen dituen ebaluaketa erizpideak bete daitezen arduratu.
- g. Ekintza osagarriak eta zerbitzuak programatu zuzendariaren gidalerroa jarraituz.
- h. Aktu akademikoak antolatzea.
- i. Arauek eta ikastetxearen antolakuntza eta iharduera-araudiak aitor deizazkioten gainerako egitekoak.

2.3.3. ZUZENDARIORDEA.

Zuzendariordeak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, honakoak izango ditu:

- a. Delegaritzaz eta zuzendariaren agintzapean, zentruko administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren burutza izango du.
- b. Zentruko eskolaz-kanpoko ekintza eta ekintza osagarriak gestionatzea, hala nola ikasturte bakoitzean ekintza plana burutzeko behar diren zentru barruko eta kanpoko espazioak.
- c. Batzorde pedagogikoa deitu, koordinatu eta bere bilkuretako akta egitea.
- d. Arauek eta ikastetxearen antolakuntza eta iharduera-araudiak aitor deizazkioten gainerako egitekoak.

Zuzendariorderik ez balego, zuzendaritza taldeko beste kideek hartuko dituzte eskumenak.

2.3.4. IDAZKARIA.

Idazkariak zuzendaritzako kide bezala dituen eskumenez gain, EEPLko 42. artikuluan adierazten dituenak bete beharko ditu. Zuzendaria eta zuzendariordea ez daudenean, delegaritzaz eta zuzendariaren agintzapean, zentruko administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren burutza izango du.

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, honakoak izango ditu:

- a. OOG aren, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen eta irakasle-klaustroaren bilkuretako gai zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako lehendakariak ezarritakoaren arabera, eta organo horien bilkuretako akta egitea.
- b. Aktak, espedienteak, eta ikastetxearen beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea.



- c. Zuzendariaren oneritziak, ikastetxearen egintza, erabaki, hitzarmen, aurrekin, liburu eta agiri guztiak egiaztatzea.
 - d. Kontserbatorioko inbentarioaren fedemaile izatea.
 - e. Zuzendariaren ordezkia izatea, hau, zuzendariordea eta ikasketa-burua ez daudenean.
 - f. Zuzendariak ezarritakoaren arabera, kontserbatorioaren araubide administratiboa ordenatzea.
 - g. Zentruaren kontabilitatea eramatea eta EEPL ko artikuluaen arabera, beharren zerrenda eta zentruaren aurrekontua jasotzen duen dokumentua egitea, hala nola bere likidazioari dagokiona, beti ere berau egiteko eta onartzeko eskumena duen organoen orientazioa jarraituz.
 - h. Kontratazioetarako aurreko aktua eta materiala erosteko proposamenak egitea, hala nola inbertsio, ordainketa eta kobrantzak.
 - i. Instalazioen mantenimendua ikuskatzea.
 - j. Arauek eta ikastetxearen AJAk aitor diezazkioten gainerako egitekoak.
- 2.3.5. Pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzea eta kargua uztea. EEPLn nahiz arauzko xedapenetan aurreikusitakoa beteko da pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzeko eta izendatuek kargua uzteko.
- 2.3.6. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeko.
- 2.3.6.1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta zuzendariorderik ez balego, ikasketaburuak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
 - 2.3.6.2. Ikasketaburua kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin-behinean. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio OOGri.
 - 2.3.6.3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta ikastetxean idazkariorderik ez badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio OOGri.
 - 2.3.6.4. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordea edo ikasketaburua jarduneko zuzendari izango dira. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikulua honetako 2.3.1.6.2 eta 2.3.6.3 paragrafoetan jaso direnak ere.

2.4. IRAKASKUNTZARAKO KOORDINAZIO ORGANOA.

Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionaleko koordinazio organoa. Francisco Escudero Musika Kontserbatorioan honako irakaskuntzarako koordinaziorako organoa daude:

- a. Departamentu didaktikoak, urtero osatzen dira kurtso antolakuntzari buruzko Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenaren arabera.
- b. Pedagogia koordinazio komisioa.
- c. Tutoreak.
- d. Irakaskuntza taldeak.

2.4.1. DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAK.

2.4.1.1. Departamentu didaktikoen osaketa eta izaera.

2.4.1.1.1. Departamentu didaktikoak, esparru, materia edo moduluen irakaskuntzaren antolakuntza eta garapenaz arduratzen diren organoa dira. Beraien helburua, materia edo esparru bera, edota antzekotasun bat dutenak, irakasten dituzten irakasleen arteko koordinazioa bermatzea da. Talde hauen eginkizuna eta burutzen duten lanaren erantzukizuna partaide guztiena da.

2.4.1.1.2. Irakasle orok astero bi ordu eskaini beharko dizkio izaera arrunteko departamentu bilerei. Honetaz aparte, departamentu buruak egoki deritzon kasuetan deitzen dituen bileretan parte hartu beharko dute, edota partaideen herenak eskatuz gero.

2.4.1.1.3. Irakasleek, bakoitzak bere asteko ordutegian gehiengoa duten esparru, materia edo moduluari dagokion departamentu didaktikoan egon beharko dute. Honetaz aparte, irakasten



dituzten gainontzeko esparru, materia edo moduluetakoko departamentuetara joan ahalko dute eta bertako lan eta erabakietan parte hartu.

- 2.4.1.1.4. Esparru, materia edo moduluren bat ez badago departamentu bati izendatua, dela departamentu ezberdinetako irakasleek irakasten dutelako, edota indarrean dagoen legeak ez duelako bere lehentasuna zehazten, kasu hauetan, zuzendariak, pedagogia koordinazio komisioaren proposamenez, erabakiko du irakasleari dagokion departamentua. Departamentu hau, departamentu buruaren ardurapean, izango da esparru, materia edo modulu hauei dagozkien zalantzak argitu eta zereginak burutzeko ardura duena, ondorengo artikulua zehazten dituenak.
- 2.4.1.2. Departamentu didaktikoen eta departamentu buruen funtzio eta kompetentziak. Departamentu didaktikoek eta departamentu, buruek Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpenak zehaztutako kurtso antolakuntza zereginak bete beharko dituzte urtero eta baita gainontzeko indarrean dagoen araudia bete ere.
- 2.4.1.3. Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionaleko departamentu didaktikoen kopurua eta izendapena. Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalean, Hezkuntza Sailburuordearen kurtso antolakuntzaren ebazpenaren arabera, honako departamentu didaktikoak osatzen dira:
- I. Akordeoi eta Perkusio Departamentua.
 - II. Analisia, harmonia, konposizio oinarriak eta Musikaren Historia departamentua.
 - III. Hari departamentua: arpa, kontrabaxua, gitarra, biola, biolina eta biolontxelo.
 - IV. Musikaren lengoia departamentua.
 - V. Orkestra, koru eta kantu departamentua.
 - VI. Pianista errepertoristen departamentua.
 - VII. Tekla departamentua: pianoa, organoa eta klabezina.
 - VIII. Haize departamentua: klarineta, fagota, zeharkako txirula, oboea, saxofoia, tronboia, tronpa, tronpeta, tuba eta txistua.
 - IX. Musika Modernoa-Jazzeko departamentua: gitarra elektrikoa eta baju elektrikoa.
- 2.4.1.4. Departamentu didaktikoetako buruen izendapena. Departamentu didaktikotako buruak urtero zuzendariak izendatuko ditu, ikasturteko horretako irakasleen artean, departamentuko proposamenaren arabera, honako prozedura jarraituz:
Departamentuetako burutza, zuzendariak (dagokion departamentuaren proposamenez) izendatutako irakasle batek hartuko du. Irakasle honek behin betiko postua izan beharko du zentroan. Departamenturen batek proposamenik egingo ez balu, Zuzendaritzak izendatuko luke burutza hori, ahal izanez gero, dedikazio arrunteko irakasleen artean. Ezingo da izendatu, zuzendaritza karguren bat duen irakaslerik.
Departamentu buruak honako helburuak ditu: departamentua zuzendu eta bertako ekintzak koordinatu, bilera deitu eta zuzendu eta bere funtzio guztien ardura izango du.
- 2.4.1.5. Departamentu bilerak. Irakasle orok bere ordutegian ostiraleko 11:00 - 13:00 tartea erreserbatu beharko dute departamentu bileretarako. Bilera hauetara bertaratzea derrigorrezkoa da departamentuko kide guztientzat.
Kurtso hasieran departamentuek Urteko Plana egin beharko dute hasiera doan ikasturterako eta bukaeran estatistikak eta Ikasturteko Memoria aurkeztu beharko dute, plangintzan sartutako helburuak bete diren ikusteko, hobekuntza proposamen berriak egiteko eta hurrengo ikasturterako egokiak ikusten diren berrikuntzak ezartzeko.
Bilera guztietan akta jasoko da, bertan gutxienez honakoak agertu beharko direlarik: agertu eta ez-agertuak, eguneko gai-zerrenda eta hartutako erabakiak.
- 2.4.1.6. Departamentu didaktikoaren bilera eta eginkizunak. Departamentu didaktikoari honako zereginak dagozkio:
- a. Departamentuko esparru edo materien programazio didaktikoak egitea. Espezialitate bakoitzeko irakasleek programazioetan curriculumak, bere kurtsoko banaketa eta ebaluazio irizpideak adostuko dituzte.
 - b. Espezialitatearekin erlazionatuta dagoen hautazko esparruko ikasgaiak proposatzea



- c. Ebaluazio frogak egin eta kalifikazioen erreklamazioei erantzun.
- d. Espezialitatearekin bat datozen formakuntza edo berrikuntza proiektuak proposatu edota espezialitatearekin bat datozen errekurtsioa lantzea.
- e. Emaizta akademikoak aztertu eta baloratu eta programazioen exekuzio eta betetze maila baloratu.

2.4.1.7. Departamentu burutza. Organo hauen zeregina talde lana da eta gainditzeko dauden ikasleentzako frogak sortu eta zuzentzea, nahiz estatistikak burutzea departamentuko kide guztien erantzukizuna da.

Departamentuak, programazio ofizialak kontutan hartuz, programazioak egokitu ahal izango ditu lan-planaren arabera. Aldaketa hauek akta liburuan azaldu beharko dute. Ikuskaritzak zainduko du curriculumaren oinarritzko irakaskuntza bermatzen dela aldaketa hauen bidez.

Departamentu burua departamentuko funtzionamenduaren erantzulea da eta bere zereginak honako hauek dira:

- a. Departamentuaren lana zuzentzea eta koordinatzea.
- b. Bilerak antolatzea, prestatzea eta zuzentzea.
- c. Programaketaren edukiak eta gutxienezko eskakizun-maila bete daitezten arduratzea, ohiko bideetatik kurtsoa gainditu ez duten guztientzako nahikotasun-froga berdina segurtatuz.
- d. Departamentuak eginiko nahikotasun-frogen eta froga gehigarri eta apartekoen kalifikapenak ikustatzea.
- e. Departamentukideen lanak banatzea.
- f. Ikasketa-Buruarekin komunikatzea, Departamentuaren jarduerak ikastetxeko beste jarduera batzuekin koordinatze eta aurreikusitako lan-egitasmoaren garapenari buruzko edo Departamentuan ikusitako edozein anomaliari buruzko informazioa emateko.
- g. Bileretako agiriak egiten direla bermatzea.
- h. Ikastetxeko AJAk zehaztu dituenak.

Saileko buruak programaketak urriaren 30a baino lehenago eman behar dizkio ikastetxearen zuzendariari, eta ikastetxean bertan geldituko dira, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura. Programazioak Ikastetxearen Urteko Planean sartuko dira.

2.4.2. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA.

2.4.2.1. Koordinazio pedagogikorako batzordearen osaketa. Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalean koordinazio pedagogikorako batzorde bat egongo da eta hau zuzendaria(lehendakaria izango dena), ikasketa burua eta departamentu buruek osatuko dute. Idazkari lana zuzendari ordeak beteko du, eta berau ezean, departamentu buru gazteenak.

2.4.2.2. Koordinazio Pedagogikorako batzordearen kompetentziak.

2.4.2.2.1. Koordinazio pedagogikorako batzordea klaustroko irakasleen komisioa izango da. Bere helburu nagusia, proiektu kurrikularraren elaborazioa eta bere aldaketak koordinatzea izango da.

2.4.2.2.2. Helburu hau burutzeko honako kompetentziak izango ditu, beti ere, klaustroko irakasleen gainbegiradarekin:

- a. Etapako curriculum-proiektuak lantzeko eta berrikusteko zuzentzarau orokorrak ezartzea.
- b. Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua ikuskatzea. Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak koordinatzea eta beroriek idaztea. Etapako curriculum-proiektuak ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin bat datozela ziurtatzea.



- c. Departamentuen, ikasleen orientazio akademikoari nahiz profesionalari buruzko planaren zein tutore-ekintzarako planaren programazio didaktikoak lantzeko eta aztertzeko irizpide orokorrak finkatzea.
- d. Klaustroari curriculum-proiektuak proposatzea, onar ditzan.
- e. Etapako curriculum-proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.
- f. Klaustroari ebaluazio- eta kalifikazio-bilkuren plangintza orokorra proposatzea, baita azterketak edo aparteko probak egiteko egutegia ere, ikasketaburuak diosenaren arabera.
- g. Irakasleen klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola-errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.
- h. Ikastetxeko jarduera nahiz proiektu guztiak ebalua daitezela sustatzea, Hezkuntza Administrazioaren edo aginte-organoen ekimenez gauzatzen diren ebaluazioetan laguntzea, eta ebaluazio horien ondorioz beharrezko gerta litezkeen hobekuntza-planak sustatzea.
- i. Hautazko gaien proposamenak onartzea.

2.4.3. TUTOREAK ETA IRAKASLE TALDEAK.

2.4.3.1. Tutoretza eta tutoreen izendapena. Tutoretza guztien erregulazioa kurtso bakoitzeko Antolakuntza Ebazpenean oinarritzen da.

- a. Tutoretza eta ikasleen orientazioa irakasle lanaren parte da.
- b. Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalean tutoreak instrumentu nagusiko irakasleak izango dira.
- c. Ikasketa buruak tutoreen lana koordinatuko du eta tutoretza lanaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko bilerak antolatuko ditu.

2.4.3.2. Tutoreen funtzioak. Tutoreak kurtso antolakuntzarako ebazpenean izendatutako funtzio eta eginkizunak beteko ditu urtero.

2.4.3.3. Irakasle taldearen antolakuntza eta erregimena.

- a. Irakasle taldea, ikasle taldeko ikasle bakoitzari irakasten dion irakasle orok osatuko du eta bere tutoreak koordinatuko du.
- b. Irakasle taldea ebaluazio araudian zehaztutakoaren arabera eta ikasketa buruak, ikaslearen tutoreak hala eskatuta, deitutako bakoitzean bilduko da.

2.4.3.4. Irakasle taldearen funtzioak. Irakasle taldearen funtzioak honakoak izango dira:

- a. Ikasleari klasea eman astero.
- b. Ikasleen ebaluazio eta jarraipen orokorra egin, neurriak hartuz bere ikasketa prozesua hobetzeko, ebaluazioari dagokion araudi espezifikoan agertzen den bezala.
- c. Bizikidetzatza hobetzeko beharrezko ekintzak zehaztea.
- d. Sortzen diren gatazkak era koordinatuan landu, hauek konpontzeko beharrezko neurriak hartuz.
- e. Ikasleei proposatutako irakaskuntza ekintzen koordinazioa bermatu.
- f. Ikasleen guraso eta tutoreei zuzendutako informazioa ezagutu eta bere osaketan parte hartu.

3. ZENTZUKO EKINTZEN PLANIFIKAZIO ETA ANTOLAKUNTZARAKO INSTRUMENTUAK.

3.1. PARTAIDETZA ORGANO ESPEZIFIKOAK.

3.1.1. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO BEREZIAK.

3.1.1.1. Partaidetza organo espezifikoak. OOGn hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen du. Horrez gain, ikasleek eta ikasleen gurasoek elkarrean eta organo berezien bidez hartu ahal izango dute parte ikastetxearen kudeaketan.

3.1.1.2. Ikasleen partaidetza organo espezifikoak. Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalean badira ikasleek parte hartzeko bi organo berezi: profesional graduako sailen ordezkariak eta ordezkarien biltzarra.

Ikaslegoa honako sailetan izango da ordezkaturia:

- a. Akordeoia, kantua, perkusioa, gitarra eta musika modernoa.
- b. Haria.
- c. Tekla.
- d. Haizea.

3.1.1.3. Taldeko ordezkariak.

3.1.1.3.1. Ikasturtearen lehenengo hilabetean eta ikasturte osorako, ikasle talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratu du, zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez. Ordezkari hautetsi hori ikasleen Ordezkarien Batzordeko kide izango da. Ordezkariorde bat ere aukeratu da. Ordezkariordeak ordezkariaren lekua hartuko du hura kanpoan denean edo gaixo dagoenean. Ordezkariordeak, halaber, laguntza eskainiko dio ordezkariari

3.1.1.3.2. Ikasturteko ordezkariak eta ordezkariordeak aukeratzeko deialdia ikasketaburuak egingo du eta berak erabakiko ditu bozketarako arauak, beti ere artikuluko honetako 3. atalean zehaztutakoa errespetatuz, eta taldeetako tutoreekin nahiz OOGn ikasleen ordezkari direnekin elkarlanean.

3.1.1.3.3. Edonola ere, taldeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai, kandidaturarik aurkeztu beharrik gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak izen bat jarriko du boto-txartelean. Botorik gehien jaso duen ikaslea ordezkari izango da, eta boto gehien jaso dituen bigarrena, aldiz, ordezkariorde. Berdinketarik izanez gero, ikasleen ordezkari hautetsietan zaharrena izango da eta ordezkariorde hurrengoa.

3.1.1.3.4. Ordezkariak eta ordezkariordeak ezeztatu ahal izango dira, baina horretarako alde aurretik tutoreari txosten arrazoitua bidaliko zaio. Txosten horrek, ordezkaria zein ordezkariordea aukeratu zuten ikasleen gehiengo absolutuaren onespina izan behar du. Kasu horretan, hauteskunde berrietarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean eta aurreko atalean adierazitakoa kontuan hartuta. Onartu diren dimisioen kasuan modu berean jardungo da.

3.1.1.3.5. Ezin izango dira ordezkariak zigortu araudi honen arabera bete beharreko funtzioak bete izanagatik.

3.1.1.4. Taldeko ordezkarien funtzioak honako hauek dira:

- a. Ordezkarien Batzordearen bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea.
- b. Aginte-organoei eta Koordinazio Didaktikorako Organoei ordezkatzeko duten taldearen iradokizunak eta keak helaraztea.
- c. Bizikidetzaren sustatzea ikasturteko ikasleen artean.
- d. Ordezkatzeko duten taldearen funtzionamenduaren gain eragina duten gaiak tutorearekin eta gainerako irakasleekin lantzea.
- e. Irakasleekin eta ikastetxearen aginte-organoekin batera ikastetxearen funtzionamendu egokiaren alde lan egitea.



- f. Ikastetxeko materiala eta instalazioak behar bezala erabiltzen diren zaintzea.
- g. Ikastetxeko aginte-organismoek, beren eskumenen barruan, esleitzen dioten funtzio oro.

3.1.1.5. Ordezkarien Batzordearen eraketa eta jardura-araudia.

- 3.1.1.5.1. Ikasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko duten organoak, EEPLren 30. artikuluan aipatzen denak, ikasleen Ordezkarien Batzordea du izena.
- 3.1.1.5.2. Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalean ikasleen Ordezkarien Batzordea egongo da. Batzorde hori osatuko dute, batetik, taldeetako ikasleek libreki hautatu dituzten ordezkariek eta, bestetik, ikastetxeko OOGn ikasleen ordezkaritza aritzen direnek.
- 3.1.1.5.3. Ordezkarien Batzordeak funtzionamendurako bere arauak landuko ditu. Ikasketaburuak onartu ondoren, arau horiek indarrean sartuko dira, eta arau horiek baztertuko dira legez ezarritako arau baten aurka badoaz, araudi honetako legeen aurka badoaz edo ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen edo betebeharren aurka badoaz.
- 3.1.1.5.4. Edonola ere, ikastetxeko ikasleen artean dagoen aniztasuna eta Ordezkarien Batzordearen eraginkortasuna zaindu beharko dira.
- 3.1.1.5.5. Zuzendariak Ordezkarien Batzordeari bere bilerak egiteko leku egoki bat utziko dio, baita behar bezala funtzionatzeko behar dituen bitartekoak ere.
- 3.1.1.5.6. Ordezkarien Batzordeko kideek, beren funtzioak betetzean, Eskola kontseiluaren bilkuretako aktak kontsulta ditzakete, baita ikastetxeko administrazio mailako beste edozein agiri ere, kasu batean izan ezik: dokumentazio jakin bat erabili edo hedatzearen ondorioz, pertsonen intimitatearen aurka doanean.

3.1.1.6. Ordezkarien Batzordearen funtzioak:

- a. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria lantzeko proposamenak, baita eskola jardunaldia antolatzeak ere, zuzendaritza taldeari luzatzea.
- b. OOGko ikasleen ordezkariei aholkularitza eta laguntza eskaintzea, baita talde edo ikasturte bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea ere.
- c. OOGko ikasleen ordezkarien aldetik informazioa jasotzea, gai-zerrendari buruz, modu eraginkorrean aztertutako gaiei buruz eta Eskola kontseiluan hartutako akordioei buruz.
- d. OOGrako txostenak egitea, bai ikasleen Ordezkarien Batzordearen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta ere.
- e. AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan.
- f. Ikasleei Ordezkarien Batzordearen jardueri buruzko informazioa ematea.
- g. Ikastetxean jardura osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko proposamenak egitea.
- h. Ikasleengan eragin zuzena duen beste edozein jardura edo erabaki.

3.1.2. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK.

3.1.2.1. Gurasoen batzarra.

- 3.1.2.1.1. Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionaleko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra, betiere, ez bada beste prozedura bat aukeratzen, artikuluen honen 2. eta 3. e) ataletan azaltzen den ahalmenean oinarrituta.



- 3.1.2.1.2. Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organoren horrek Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzatzen direla gainbegiratuko du.
- 3.1.2.1.3. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:
- Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza jardueren, prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa programa gauzatzearen balioespena.
 - Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.
 - Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.
 - Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.
 - Funtzionamendurako bere arauak onestea.
- 3.1.2.2. Ikasleen guraso-elkarteak eta ikasle-elkarteak.
- 3.1.2.2.1. Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalean indarrean dagoen otsailaren 2ko 66/1987 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteak arautzen dituenak– xedatzen duenaren arabera eratu diren ikasleen guraso-elkarteak aintzatetsiko ditu, haien egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die. Ikastetxeak, halaber, legalki sortu diren ikasle-elkarteen egoitza izango da eta ikasle-elkartei ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die.
- 3.1.2.2.2. Zuzendariak zehaztuko du legalki eratu diren elkarteek zer lokal erabiliko dituzten modu iraunkorrean. Zuzendariak, elkarten ordezkariak hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango die arestian aipatutako elkartei.
- 3.1.2.3. Elkarte legalki eratouen bidez parte hartzea. Ikastetxean eratu diren ikasleen guraso-elkarteek nahiz ikasle-elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:
- OOGri hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.
 - OOGri ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.
 - Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.
 - OOGn landu diren gaiei buruzko informazioa jaso. OOGren gai-zerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.
 - OOGrako txostenak egin, bai guraso- nahiz ikasle-elkarteen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta.
 - AJA aldatzeko proposamenak landu.
 - Jarduera osagarriak egitea proposatzea.
 - Emaitza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.
 - Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta proiektu horien aldaketen ale bat jasotzea.
 - Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuei eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.
 - Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
 - Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.

3.2. DOKUMENTAZIOA.

Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioak, bere nortasun autonomoari esker, araudi honetaz gain, honako beste araudi instrumentuak onartu eta exekutatu ditu:

- 3.2.1. Hezkuntza Proiektua. Zentruko Hezkuntza Proiektua (ZHP) hezkuntza komunitateak sorturiko dokumentu pedagogikoa da eta Zentroaren nortasun ezaugarriak definitzen ditu, lortu beharreko helburuak zehazten ditu eta Hezkuntza Zentroaren antolakuntza eta funtzionamendu estruktura adierazten du.



ZHP hezkuntza interbentzio prozesua aurrera eramateko beharrezko deklarazioen multzo koherentea da eta ekintzak bideratzen dituzten planteamendu orokorrak eta interbentzioa eta garapena errazten dituzten planteamendu espezifikoak konbinatzen ditu.

Lehentasunak zehazten laguntzen duen dokumentua da eta urteko planean eta irakaskuntza ekintzaren programazioan agertu beharko du, honela ikasleei iritsi eta ebaluatzeko. Dokumentu hau ez da itxia eta aldakorra da.

ZHPk honako galderei erantzuten die:

- Nor gara? (Identitate printzipioa),
- Zer nahi dugu? (Lortu beharreko helburu nagusiak),
- Non gaude? (Kontestuaren azterketa),
- Nola antolatuko gara helburuak lortzeko?, eta
- Nork osatu eta onartuko du?

Galdera hauei erantzunez, ZHP izaera orokorreko hezkuntza deklarazio koherenteen multzoa biltzen duen dokumentua da.: identitate printzipioak, helburu instituzionalak eta organigrama orokorra.

Euskal Hezkuntza Publikoaren Legeak irakasle taldeak eta irakasleak lotesten ditu Zentroko Hezkuntza Proiektuan parte hartzera.

Irakasleek, hezkuntza ekintzen elaboraziori eta programazioari dagozkien erabakiak hartu ahalko dituzte. Erabaki indibidual hauek dokumentuaren lerro nagusiekin bat etorri beharko dute.

3.2.2. Curriculum Proiektua. Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP) hezkuntza eta formazio eskaintza zehazten duena da. Bertan, hezkuntza praktika eta metodologia eta esparru ezberdinetarako zehatzak (helburuak, konpetentziak, metodologia, ebaluazioa...) zehazten ditu. Bere elaborazioa eta onarpena irakasle klastroari dagokio. Hezkuntza Proiektuaren ekintza didaktikoarekiko koherentzia mantenduko du. Dokumentu irekia izango da aldaketak egin ahal izateko.

3.2.3. Hizkuntza Proiektua. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerekin zerikusia duen oro antolatzen duen dokumentua da.

3.2.4. Antolamendu eta Jarduera Araudia. AJA ikastetxe bakoitzak modu autonomoan egiten duen dokumentua da, eta bertan osaketa, konpetentzia, zentroko organoen hautaketa moduak eta bertako funtzionamendu egokia bermatzeko eta hezkuntza ekintzen garapen egokia eta bere erregimen ekonomiko eta administratibo bermatzeari buruzko erabakiak biltzen dira.

Honakoak bilduko ditu gutxienez:

- Ikastetxeko antolakuntza estruktura eta bere funtzionamenduaren definizioa.
- Hezkuntza komunitatean bizikidetzeta eta errespetua eta ikastetxeko instalakuntzen erabilera egokia bermatzen dituzten arauak. Hauek izaera demokratikoa izango dute hezkuntza komunitateko kide guztien eskubide eta betebeharrak errespetatu daitezten.
- Ebaluazioen erreklamazio erregimena.

AJA OOGk onartu eta aldatuko du eta kasu bakoitzean ikastetxeak Hezkuntza Administrazioa bidaliko du, honek onartzeko.

3.2.5. Gestio Proiektua. Kontserbatorioak bere errekurtsoen kudeaketarako autonomia izango du. Ikastetxeak Gestio Proiektua onartuko du bere autonomia honen adierazpen gisa eta bere ekintza ekonomikoaren kontrola erraztearren, hezkuntza komunitatearen nahiz Administrazioaren aldetik.

Proiektu honek Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua aurrera eramateko dituen errekurtsoen antolaketa eta erabilpena zehazten ditu. Gutxienez hauek izango ditu:

- Ikastetxeak dituen errekurtsoen zerrenda.
- Irakasle taldeen antolakuntzarako oinarritzko printzipioak.

Behin OOGk onartuta, Gestio Proiektua hezkuntza Administrazioari bidaliko dio zentroak, honek onartu dezan.

3.2.6. Urteko Plana. Ikastetxeko Urteko Plana (IUP) ikastetxeko ekintzen planifikazioa, antolakuntza eta gestioa biltzen dituen erraminta da. Kurtso hasieran osatu eta onartuko da eta Ikastetxeko Idazkaritzan egongo da Hezkuntza Ikuskaritzarentzat eskuragarri. Zuzendaritza da IUPren osaketa koordinatzeko



arduraduna eta kasu bakoitzean dagokion elkargokide organoa zango du eskuragarri. Ikastetxearen OOGri dagokio IUPren onarpena, betiere Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak irakaskuntza-jardueren programaren arloan klaustroari esleitzen dizkion eskumenen kalterik gabe.

Urteko Planak honako sailak izan beharko ditu:

- Hezkuntza ekintzen Programa.
- Eskolaz kanpoko ekintzen programa.
- Kudeaketa ekonomikorako plana.
- Jasangarritasun irizpideak.

IUPk urtean zehar lortu beharreko helburuak zehaztuko ditu eta hauek aurreko ikasturteko memoriaren ondorio eta hobekuntza proposamenekin, goragoko ikastetxe antolakuntza dokumentuetan (IHP, ICP...) zehaztutako estrategiekin eta hezkuntza komunitateak adierazitako beharrek bat etorriko dira.

3.2.7. Urteko Memoria. Urteko Memoria IUPren analisia eta betekizun mailaren eta lortutako emaitza akademikoen emaitza da.

Kurtso bukaeran egingo da eta zuzendaritza taldea izango da bere osaketa koordinatzeko arduraduna.

IUPren analisia eta betekizun mailaren eta lortutako emaitza akademikoen emaitzak kontutan hartuta ikastetxe bakoitzak autoebaluazioa egingo du. Honela, ondorioak eta hurrengo ikasturterako hobekuntza proposamenak eginez, eta lehentasunak ezarriko ditu hurrengo urteko helburutzat hartuko direnak IUPn. Urteko Memoria OOGk onartu behar du.

3.3. IKASLEEN ANTOLAKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA EKINTZAREKIN ERLAZIONATUTAKO ALDERDIAK.

Ikasleak, kurtsoak eta taldeak irakasleei banatzeko zuzendaritza taldearen irizpideak:

3.3.1. Ikasketa Buruak, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36.2.f eta 41c. artikuluei jarraiki, irakasle bakoitzari kurtso eta talde zehatzak esleituko dizkio, honako irizpideak jarraituz:

- a. Egonkortasun laborala ikastetxean.
- b. Irakatsi beharreko espezialitatean Goi-mailako titulazioa.

Behin irizpide hauek ezarrita, adostasunik ez balego, Ikasketa Buruak honako hautaketa prozesua jarriko du martxan, irakasleek talde eta klase indibidualak hautatuko dituztelarik, ordena honetan:

- a. Karrerako Funtzionarioak eta kontratu laboral mugagabea dutenak, ikastetxean behin betiko postua dutenak, ikastetxeko aintzinasuna kontutan hartuz, horretarako behin betiko postua lortzen deneko data kontutan hartuz.
- b. Karrerako Funtzionarioak, behin betiko posturik ez dutenak, zerbitzu eginkizunetan daudenak edota behin behineko postua dutenak. Honetarako musika irakaskuntzan karrerako funtzionario moduan emandako denbora hartuko da kontutan.
- c. Ordezkapen zerrendetan dauden irakasleak dagokien baremoa kontutan hartuz.

Sorturiko edozein zalantza, Langileen Kudeaketa Zuzendaritzak argituko du.

3.3.2. Zaintzak. Ikastetxea eta bereziki zuzendaria izango da ikasleen arduraduna eskola orduetan. Zaintzak modu egokian bete ahal izateko adina irakasle egon beharko da ikastetxean.

Eginkizun nagusiak:

- a. Irakasle gabe dauden ikasleak zaindu.
- b. Sorturiko gatazkei aurre egin eta Ikasketa Burua honi buruz informatu. Gainera, ikastetxean beharra duen pertsona orori laguntza eskaintzeko beharrezko gestioak egin.
- c. Irakasleen puntualitatea eta asistentziaz informatu, hutsegiteen orria behar bezala erabiliz.

Zaintzen aukeraketa eta ordutegi esleipena irakasleen klaustroan egingo da, ikasleen ordutegiaren esleipena baino lehen. Irakasleen antzinasunaren arabera egingo da hau.

3.3.3. Zaintzen parteak. Ikasketa Buruak egunero egingo du zaintza parteak eta honako gutxieneko puntuak izan beharko ditu:

- a. Irakasleen hutsegite eta atzerapenak.
- b. Ikastetxean sortutako intzidentzia eta istripuak.



c. Zaintzako irakasleen sinadura.

3.3.4. Ikasleen antolakuntza. Ikastetxearen antolakuntzak ikasle bakoitzari erraztuko dio bere curriculum osatzen duen irakasgai bakoitzaren asistentzia ahalik eta koordinatuena izan dadin, Kontserbatoriora klase ordu solteetan etorri beharra saihestuz.

Horretaz aparte, LOEren 47. Artikuluak 16 urtetik beherako ikasleentzat zehazten duen beharrezkotasunezko izaera kontutan hartuz, musika ikasketa hezkuntza orokorrarekin batera egin ahal izateko, antolakuntza mekanismoak jarriko dira.

Behin behin betiko ordutegiak finkatutakoan, ordu librerik balego, kontserbatorioak beharra duten ikasleentzat laguntza, errefortzu eta erreuperazio ekintzak antolatu ahal izango ditu.

3.3.5. Ikasleen ordutegia. Ikastetxean dauden giza errekurso guztiak erabiliz ahalik eta ikasle gehien sartuko dira ikastetxearen ordutegi orokorrean. Honetarako, zuzendaritza taldeak proposaturiko irizpide eta lehentasunak kontutan hartuko dira, eta hauek klaustroak eta OOGk onartu beharko ditu.

3.3.6. Ordutegien esleipenerako irizpideak:

- a. Espezialitatearen arabera, oinarrizko 3 eta 4. mailako ikasleei Musika Hizkuntza, Korua eta Instrumentu Praktika ikasgaiak esleituko zaizkie.
- b. Espezialitatearen arabera, profesional 1 eta 2. mailako ikasleei Korua, Orkestra, Banda eta Musika Hizkuntza ikasgaiak esleituko zaizkie.
- c. Oinarrizko 1 eta 2. mailako ikasleei Musika Hizkuntza ikasgaiaren esleipen gidatua egingo zaie.
- d. Profesional 3. eta 4. mailako ikasleei Harmonia ikasgaiaren esleipen gidatua egingo zaie, etxebizitza eta kontserbatorioaren artean dagoen distantzia kontutan hartuz*.
- e. Profesional 5. eta 6. mailako ikasleei Musikaren Historia, Análisis eta Konposizioaren Oinarriak irakasgaiak esleituko zaizkie etxebizitza eta kontserbatorioaren artean dagoen distantzia kontutan hartuz*.
- f. Piano eta gitarra elektrikoko ikasleentzat Akonpainamendu irakasgaia esleituko zaie etxebizitza eta kontserbatorioaren artean dagoen distantzia kontutan hartuz*.
- g. Ganbara musika, Taldea, Entzumen Hezkuntza, Informatika Musikala, Inprobisazioa eta Musika Hizkuntzaren Pedagogiarako Sarrerarako taldeak osatuko dira.
- h. Azkenik, Instrumentu Nagusirako Errepertorioa, Pianista Laguntzailearekin Errepertorioa, Piano Osagarria eta Instrumentu Osagarria esleituko dira*.

* D, e, f, h, puntuetan adierazitako irizpidea honako zonifikazioan oinarritzen da, 6 zonako ikasleari lehentasuna emanez:

1. zona: Donostia zentrua, Alde Zaharra, Amara Zaharra, Amara (Pío XIIrarte).

2. zona: Donostiako beste auzoak.

3. zona: Hernani, Lasarte, Usurbil, Pasaia, Lezo, Errenteria, Urnieta, Andoain.

4. zona: Oiartzun, Orío, Zarautz, Billabona, Zizurkil, Asteasu, Tolosa, Ibarra, Irun, Hondarribia.

5. zona: Zestoa, Zumaia, Arano, Leitza, Lesaka, Amezketa, Beasain, Elgoibar, Azpeitia, Deba.

6. zona: Bergara, Eibar, Zumarraga, Mutriku, Legazpi, Bizkaia.

3.3.7. Neurri espezifikokoak. Musika irakaskuntzako ikasleek bateratze neurri espezifikotarako aukera dute konbalidazio, curriculumaren egokitzapena, antolakuntza, etab. i dagokionez.

3.3.8. Espediente lekualdatzea. Euskal Autonomia Erkidegoko 3 kontserbatorioetako ikasle ofizialek lehentasunezko eskubidea dute beste kontserbatorioetan onartuak izateko, inongo sarrera frogarik pasa gabe ikasketak jarraitu ahal izateko.

Eskakizuna egiterako unean, plazarik ez balego, itxaron zerrendako lehen postuan geratuko lirakeke.

Hala eta guztiz ere sartzen ez badira, hurrengo ikasturtean lehentasun eskubidea izango lukete, ikastetxe horretako ikasle ofizialen ondoren eta irakaskuntzen planifikazioaren arabera irakaskuntza profesionaletara sarbide proba bidez sartu direnen ondoren. Kontserbatorioak beste zentroetako lekualdatze matrikulak kudeatu ahal izango dituzte, bakanterik balego, behin EAeko beste kontserbatorio publikoetako eskakizunak eta bertako itxaron zerrendak kontutan hartu ondoren.



- 3.3.9. Matrikularen uko egitea. Edozein ikaslek, idatzi bidez, matrikularen uko ekitea eskatu ahal izango dio ikastetxeko zuzendaritzari. Kurtsoaren lehen hiruhilekoan eginez gero, ez da deialdia pasako. Ikastetxeko zuzendaritzak onartutako deuseztatuko matrikulen titularrak, ikastetxeko ikasle izaera galduko luke eta honekin batera matrikulatua izan den ikasgai denetako izen ematea indargabetuko litzateke.
- 3.3.10. Ikasleen bertaratze eta bajak. Ikasleek klasera bertaratzeko derrigortasuna dute, eta ezinezkoa da ikaslea matrikulatuta dagoen ikasgaietan borondatezko bertaratze sistemarik jartzea. Salbuespen bat egingo da baliozkotze prozesuan dauden ikasleak Irakasleak, bere ikasleen hutsegite faltak kontrolatzeko betebeharra dute. Araudi hau modu honetan beteko da:
- Irakasle bakoitzak, ikasketa buruari bere ikasleen hutsegiteen parteak (justifikatuak eta ez justifikatuak) bidali beharko dizkio atzerapenik gabe, ikasleek aurkeztutako justifikazio dokumentuak erantsita.
 - Adingabeko ikasleen hutsegiteen justifikazio dokumentuak, bere gurasoek edo tutore legalek aurkeztu beharko diote dagokion ikasgaiko irakasleari, horretarako kontserbatorioak bere web gunean inprimatu ahal den eredu bat du. Adin nagusiko ikasleek, beraien hutsegitean justifikatzeko edozein lan postutan eskatu ahal diren justifikazio dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Hutsegiteen justifikazioa Ikasteta Buruaren bitartez egingo da.
- 3.3.11. Bajak:
- Koordinazio Pedagogikorako Komisioak zehaztuko du (departamentuei informeak eskatu ondoren) ikasgai bakoitzean zenbatekoa izango den hutsegite kopurua, ezinezkoa izateko integratzailea eta etengabeko ebaluazioaren aplikazioa. Komisio honek ezarri du ezingo dela asteko klase bakarra duten ikasgaietan justifikatu gabeko sei falta baino gehiago izan, eta asteko bi klase duten ikasgaietan gehienez hamabi izango direlarik. Komisio honi dagokio, ordezko ebaluaziorako prozedura bat finkatzea kasu bakoitzean, programazioetan zehazten dena kontutan izanik.
 - Aurreko paragrafoan esandakoa gertatuko balitz, eta ezinezkoa balitz ebaluazio arrunta aplikatzea kurtso bateko ikasgai erdietan edo gehiagotan, ikasleak zentroko baja izango luke eta ikasturtea galduko luke.
 - Egoera hauei irtenbidea ematerako orduan, kontutan hartu beharko da, ikasgai batera joateari usten dion ikaslea (osotasunean edo partzialki), ekaineko deialdi arrunteko Akta eta Kalifikazio Liburuan kalifikatua izan beharko dela, ikasle hori hutsegite faltengatik edota bere matrikularen uko-egitea onartua izan ezean.
 - Urrunaldi luzeetan, gaixotasunagatik, istripuagatik edota bestelako arrazoiengatik dokumentu mediko bidez edo ikaslearen egoera azaltzen duen dokumentu ofizial bidez, frogagarri diren justifikazio dokumentuak aurkeztuz gero, ikasleak ez luke ofizialtasunik galduko eta hurrengo ikasturtean matrikulatu ahal da sarrera frogarik egin gabe. Erabaki hau, ikaslearen egoera ezagutzen duen irakasle taldeak aholkatuta, zentroko zuzendaritzak hartuko du eta ikaslearen txostenean agertu beharko da.
- 3.3.12. Eskolaz kanpoko ekintza osagarriak. Zentro batek, ikaslearen klase ordutegiaren barruan beste ekintza batzuk antolatzen baditu eskolaz kanpo (bisitaldi, txango, kontzertu, etab.), hauek Zentroko Urteko Planaren barruan ekintza osagarrien programan agertu beharko dira, eta ez badira agertzen, Organo Gorenak onartu beharko ditu. Eskolaz kanpoko lekualdatzea eskatzen duten ekintza didaktiko hauek burutzeko, adingabeko ikasleen gurasoen edo tutoreen idatzizko baimena beharrezkoa izango da. Eskolaz kanpo burutzen den edozein ekintzatan, ikasleak gutxienez bi pertsona nagusiz lagunduta egon beharko dute une oro, bi hauek bat ikastetxeko irakaslea izan beharko delarik. Bestalde, irakasle laguntzaileen kopurua gutxienez 20 ikasleekiko irakasle batekoa izango da, edo 10 baino gehiagoko zatikikoa, beti ere aurretik adierazitako gutxieneko kopurua errespetatuz. Ahal den neurrian, irakasle laguntzailea ekintza konkretu horretako talde didaktikoa izango da. Eskolaz kanpoko irteerak antolatzeko orduan, ikasle guztien beharrak kontutan hartuko dira, baita behar hezitzaile bereziak

dituztenak ere. Denek dute ekintzetan parte hartzeko eskubidea, horregaitik aurrerapenarekin aurreikusi beharko dira eta egokienak aukeratu, inor baztertua izan ez dadin.

4.1. BIZIKIDETZA ARAUAK.

4.2. PRINTZIPIO OROKORRAK.

4.2.1. Bizikidetza oinarriak.

Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalaren ustez, bizikidetza bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorriz.

4.2.2. Berdintasunean oinarritutako hezkuntzarekiko konpromezua.

Hezkidetza eredua, ikastetxeak aurreikusi eta landuko dituen dokumentu eta ekintza guztietan bildu beharko da; izaera sexista duten praktika edo materialak baztertzeari arreta berezia emango zaio eta berdintasun-irizpideak bildu.

OOGak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-neurriak bultzatzeko pertsona bat izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da ikastetxearen jarduerako plangintza eta antolamendu-proiektuetan genero ikuspegia txertatzea. Bere ardura izango da, halaber, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ikastetxe osoan benetakoa izan dadin bultzatzea. Horretarako, eginkizun hauek izango ditu:

:

- a. Berdintasun eta hezkuntza arloko arau-esparrua ezagutzea eta zabaltzea, eta ikastetxean betetzen dela bultzatzea.
- b. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun araudietan xedatutako baloreak eta helburuak ikastetxeko hezkuntza-proiektuan bilduta daudela zaintzea.
- c. Irizpideak ezarri, ikastetxean onartzen diren aurrekontuak genero-ikuspegia kontutan hartuta egiten direla ziurtatzeko. Baliabideak genero-berdintasuna errespetatuta esleitu eta banatuko dira.
- d. Eskolaz kanpoko zein osagarriak diren ekintza osagarriak genero-ikuspegia aintzat hartuta antolatzen direla bultzatzea..
- e. Prestakuntza/sentsibilizazio neurriak edota ekimenak sustatzea hezkuntza komunitatean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta hezkidetza bultzatzeko.
- f. Ikastetxean, genero-indarkeria kasuak antzemateko eta haien aurrean jarduteko neurriak ezartzen direla zaintzea (jazarpen sexista, sexu-jazarpena, etxeko tratatu txarrak, sexu-erasoak...).
- g. Udal- administrazioekin, beste ikastetxe, entitate eta erakunde batzuekin, elkarteekin eta abar lankidetzan aritzea berdintasuna, hezkidetza eta generoko-indarkeriaren prebentzioa bultzatzeko
- h. Ikasturte amaierako azken txostenean ikastetxean berdintasunaren alorrean egindako jardueren berri eman dadin proposatzea.
- i. Hezkuntza komunitatean, gizonen eta emakumeen arteko bultzatuko duen beste edozein ekintza bideratzea.

Pertsona honen aukeraketa egiteko orduan, kontutan hartuko dira bere prestakuntza, esperientzia, eta baita berdintasunaren zein hezkidetzaren alde aurretik egindako lana kontuan iznago dira.

4.1.3. Bizikidetzaren plana.

Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalak bizikidetzaren plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetzaren helburu nagusia, bizikidetzan gerta daitezkeen gatazken prebentzioa da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jardura eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazka ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez, ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabil daitezke.

4.1.4. Hezkuntza komunitateko bizikidetzarako arau nagusiak.

Arau batzuk zehazten dira, zeinak, Hezkuntza komunitateak bere osotasunean bete beharko dituen. Hauen artean aipatzekoak dira:

- a. Araudi honetan agertzen den guztia errespetatzea.
- b. Ikastetxeko materiala eta instalazioak modu egokian erabiltzea, bideratuta dauden erabilera zehatzak errespetatuz.
- c. Errespetuzkoa eta egokia den hiztegia erabiltzea.
- d. Irakasleek soilik erabiltzeko diren guneetara ez sartzea eta ezta bertan egotea, edo igarobide izan daitezkeen beste lekuetan edota eskaileretan, esaterako.
- e. Hezkuntza zentruko edozein espazioan kartelak ipini edo kentzeko hezkuntza zentruko zuzendaritza taldearen onespenearekin kontaktua. Irakasleek egindako entzunaldien kartelak izan ezik. Lanaren inguruko edota sindikatoetako kartelak, soilik irakasle gelan egokitutako lekuan ipiniko dira.

Zuzenketa neurriak jokabidea zuzentzera bideratuta egon daitezkeen lortuko da, hauen bitartez, zuzendu beharreko jokabidearen ondorio bezela jaso daitezkeen.

4.1.5. Eskubideen berehalako babesa.

Irakasleek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte. Irakasleren batek, ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala ikusten badu, edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, berehala esku hartu beharko du. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana joateko agindua eman.

4.1.6. Betebeharrak betetzeko bermea.

Irakasleek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte. Irakasleren batek, ikasleak bere betebeharrak betetzen ez dituela ikusten badu, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketaburuarengana joatea aginduko dio.

4.2. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA.

4.2.1. Ikasleen eskubideen babeserako irakasleen inplikazioa.

Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionaleko irakasle guztiek, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez, ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

4.2.2. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea.

4.2.2.1. Adingabeokoa diren ikasleek, Ikastetxearen eta irakaslegoaren aldetik, berehalako atentzioa izateko eskubidea dute.

4.2.2.2. Dagokion konpetentzia arlokoa bada, arreta zuzenean burutuko da eta bestela, organo edo konpetentziatzko zerbitzura bideratuko da, betiere, berehala gertakariak guraso edo adingabeokoa ordezkarri legalari ezagutzera emanaz edo beharrezkoa den kasuetan, Ministerio Fiskalari.

4.2.2.3. Ikastetxea eta bertako langileak, ikasleei beharrezkoa duten berehalako arreta emateari uko egin gabe, behartuta daude lehenik eta behin, haurrek jasan ditzaketan babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, ikasketaburuari edo ikastetxeko zuzendaritza taldeari adieraztea, ondoren Administrazio Publikoan adingabeokoa babesaz arduratzen den sailari jakinaraziz, baita beharrezkoa denean, Ministerio Fiskalari edo Aginte Judizialari ere. Interbentzioaren eraginkortasuna eta kalitatea bermatuko duten beharrezkoak izango diren datuak edo informazioak azaldu beharko dituzte eta aipatutako Administrazioekin elkarlanean aritu, egoera hauek ekidin eta konpontzeko, uneoro adingabeokoa lehentasunezkoak diren interesak kontutan hartuz.

4.2.2.4. Irakaslegoaren zeregina da, berdinen arteko tratu txarrak saihestea edo ahalik eta lasterren hautematea. Tratu txarren arrastorik antzemanaz gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarri beharko da berehala, egoki diren protokoloak aplikatuak izan daitezten.

4.2.3. Ohorerako, intimitaterako eta berezko irudia babesteko eskubidea.

4.2.3.1. Ikastetxean matrikula gauzatzean, inprimaki bat entregatuko da ikasleen irudiak argitaratzeko baimena eskatuz, eremu pedagogikoan hartutakoak, web horrian edo sare sozialetan ipintzeko, gure zentruan egiten diren ekintzak ezagutzera emateko edo publizitatea egiteko.

4.2.3.2. Ikasgelatik kanpo, hau da, eraikinean edo eskola-esparruan, aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekaturik egongo da baita ere, hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

4.2.4. Biltzeko eskubidea.

Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionaleko aginte-organoei, legeak ikasleei aitortzen dien biltzeko eskubidea modu eraginkorrean gauzatzen dela ziurtatuko dute, biltzeko eskubidearekin erlazionatutako alderdi guztiak zainduz. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea

hezkuntza-helburuarekin bat datorrela eta adingaberako babes legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da. Horretarako, pertsona bakarreko agente-organismoek jarraian zehazten dena hartuko dute kontuan:

- a. Sailak beraien gelan bil daitezke, eskolarik galdu gabe, aldez aurretik tutoreari jakinaraziz eta bere kasuan, bere presentziarekin, ikasketei buruzko gaiak lantzeko. Bilera horietan, sailekoa ez den ikaslerik ezin izango da egon. Tutorea ez badago, bilera horien buru eta moderatzaile saileko ikasleen ordezkaria izango da.
- b. Zuzendariak adieraziko du Ordezkarien Batzordeak zer lekutan egingo duen bilera. Horretarako, Araudi honetako 38.2 artikuluan aipatzen den eta funtzionamendurako arauak aurreikusten duten bileretarako araudiari jarraituko zaio.
- c. Ordezkarien Batzordeak, egoki jotzen duenean, ikasle ordezkariari kontsulta egitea erabaki dezake. Horretarako, Ordezkarien Batzordeak, ikasketaburuari baimena eskatuko dio, eta honek, gai-zerrenda irakurri ondoren eta bertan azaltzen diren gaiek Ordezkarien Batzordearen eskumenekin duten egokitzapen-mailaren arabera, baimena emango du ala ez. Horrez gain, aurreko bileretan gai-zerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke zuzendariaren aurrean.
- d. Bileren deialdia ikasle guztiei jakinaraziko zaie ikasleen ordezkarien bitartez, bileraren aurreko egunean eta baita Gai-zerrendaren berri ere. Bileretara joatea ez da derrigorrezkoa izango.
- e. Ikasketaburuak, zuzendariaren agintepean, bilera non eta noiz egingo den erabakiko du eta eskola-ordutegitik kanpo egingo da.

4.2.5. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea.

4.2.5.1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei adierazpen askatasun eskubidea gauzatzeko aitortzen die:

- a. Zuzendariak edo, haren lekuan, ikasketaburuak, arautuko du eskubide hori gauzatzeko modua, espazioak eta lekuak. Edozein kasutan, erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da.
- b. Edonola ere, informazioa jendarteratzeko dauden lekuetan eta espazioetan jartzen den informazio orotan, informazioaren erantzule den pertsonaren, erakundearen, elkartearen zein taldearen izena agertuko da.
- c. Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.

4.2.5.2. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduz.

4.3. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK.

4.3.1. Ikasleen betebeharrak.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan jasotzen diren betebeharrak dira ikasleek bete behar dituztenak. Jarraian laburbiltzen dira:

- a. Ikasteko betebeharra.
- b. Formakuntza ekintzetan parte hartzeko betebeharra.
- c. Bertaratzeko betebeharra.
- d. Bizikidetzazko errazteko betebeharra.
- e. Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.
- f. Ikastetxeko arauak errespetatzeko betebeharra.
- g. Instalazioak errespetatzeko betebeharra.



Betebehar hauek betetzen ez direla ikusten duen edozein irakaslek, esku hartu beharko du bizikidetzara egokitzen ez den jokabide hau zuzentzeko.

4.3.2. Jokabide desagokiak.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak ez diren hezkuntza zentruetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak adierazten dira. Hauek dira aipatzen diren zuzendu beharreko jokabideak:

- a. Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b. Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.
- c. Hezkuntza zentruko aretoak hondatzea, bertako material edo objektuak edota hezkuntza komunitateko beste kideen gauzak puskatzea, arduragabekeriaz egiten den kasuetan.
- d. Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, mespretxu, irain edo nahita diziplina hausten ez denean, eta baita hezkuntza zentruko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e. Hezkuntza komunateteko kideen aurkako begirune gabeko jarrera, keinu edo hitzak.
- f. Hezkuntza zentruan, Hezkuntza zentruko gobernu organoak dagokion kompetentzia eremuan debekatu dituen ekipamendu, material, jantzi edo tresnak eramatea.
- g. Hezkuntza zentruko ekipamendua, elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo beste edozein motatakoa erabiltzea inongo baimenik gabe edo baimendutakoak ez dauden beste helburuekin.
- h. Hezkuntza zentruko langileei gezurrak esan edo informazio faltsua ematea, hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez dion kasutan.
- i. Kalifikaziorako baliagarri diren azterketa, froga edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, ezta azterketa, froga edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- j. Baimendurik ez dauden pertsonen hezkuntza zentzura sarrera erraztea edo Bizikidetzara arauen edo hezkuntza zentruko aginte organuek emandako jarraibideen aurka beraiekin sartzea.
- k. Kideen ondasunak nahita erabiltzea haien borondatearen aurka.
- l. Norberaren betebeharren beste edozein ez betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori hezkuntza zentruko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzara horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

4.3.3. Zuzendu beharreko jokabideak.

Egokiak ez diren jokabideak, irakasleek zuzenduko dituzte ondoren aipatzen diren neurri bat edo gehiago erabiliz:

- a. Egokia izan ez den jokabidearen eta honek izandako ondorioen inguruko hausnarketa.
- b. Kaltetua izan den edo diren pertsonen aurrean jokabidea desagokia izan dela onartzea.
- c. Jokabide-eredu egokiak ikasteko edo barnertatzeko jarduerak aurrera eramatea.
- d. Jokabide desagokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen eginkizun bat egitea.
- e. Unean bertan zuzendari, ikasketaburu edo zuzendaritza taldeko beste edozein kideren aurrean aurkezteko agindua.

4.3.4. Bizikidetzaren aurkako jokabideak.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak ez diren hezkuntza zentruetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak adierazten dira. Hauek dira aipatzen diren bizikidetzaren aurkako jokabideak:

- a. Hezkuntza zentruetako lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta hezkuntza zentruko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera, diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.



- b. Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuak ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.
- c. Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- d. Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.
- e. Ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari, dokumentuei edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik, jokabide hori, hezkuntza zentruko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- f. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- g. Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- h. Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- i. Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzearik gabe erabiltzea.
- j. Hezkuntza zentruko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- k. Diskriminazioa dakarren edozein jarrera edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo soziala. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.
- l. Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.
- m. Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

4.3.5. Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko prozedura.

Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurretik aipaturiko aurkako jokabideen zuzenketan agertzen direnak edo honako neurri bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

- a. Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
- b. Idatzizko ohartarazpena.
- c. Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
- d. Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.



- e. Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, hezkuntza zentruko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.
- f. Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz hezkuntza zentzura joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
- g. Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte eta jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
- h. Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte eta jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio hezkuntza zentzuan.

4.3.6. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak ez diren hezkuntza zentruetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak adierazten dira. Hauek dira bertan aipatzen diren bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak:

- a. Hezkuntza zentruetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obediencia-ukitze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak egitea ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita egonik ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- b. Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
- c. Jazarpen sexista, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsaitua, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- d. Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- e. Zentruko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
- f. Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
- g. Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- h. Hezkuntza zentzuaren instalazioetan edo ondasunetan, hezkuntza zentruko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka edo taldean nahita kalteak eragitea.
- i. Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, alde zuzenetik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.



- j. Hezkuntza zentruko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.
- k. Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen zentruko dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- l. Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.
- m. Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz izatea 10.5 puntuan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, "I" atalean bildutakoa izan ezik, betiere, aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
- n. Norberaren betebeharrak ez betetzeak dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hala nola, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

4.3.7. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.

Hezkuntza zentruko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

- a. Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo hezkuntza zentruko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere gehienez ere, sei hilabetez.
- b. Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleen kontrolpean.
- c. Hezkuntza zentrura joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleen kontrolpean.
- d. Eskolaz kanpoko jardueretan edo hezkuntza zentrutik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

Bizikidetzaren zehaztuak agertuko dira jokabideak zuzentzeko orduan hartu diren neurrien prozedurak eta epeak.

5. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJETIBOA.

5.1. PRINTZIPIO OROKORRAK.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izateko duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

5.2. KASU PARTIKULARRAK.

Irakasleen ordezkapenen kasuan, denboraldi luzeagoz irakatsi duenak, ebaluaketa bileran egongo ez dela aurreikusten denean, ikasketaburuari ikasleen errendimenduari buruzko txosten bat emango dio. Ebaluaketa burutzen duen irakasleak kontutan hartu beharko du txosten hau.

5.3. PUBLIKOTASUNA.



5.3.1. Ikasketaburuak, ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko Curriculum Proiektua eskuratzeko duten eskubidea bermatu beharko du. Ikasleen eta beren ordezkarien eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarritzko gaitasunak.

5.3.2. Ikasketaburuak, halaber, didaktika-departamentuek eta irakasleek publiko egiten dituztela bermatu beharko du: batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak, bestetik, ebaluazio-prozedura nahiz -irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeko egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusitako diren prozedurak.

5.3.3. Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heldzen zaiela.

5.4. IKASLEENTZAKO ETA GURASOENTZAKO INFORMAZIOA.

5.4.1. Ikasketaburuak irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatu dela bermatu behar du. Halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartean izatea zaindu behar du.

5.4.2. Tutorearen betebeharrak baztertu gabe, irakasleek ezin diote uko egin, ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari, aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak irakasle guztiek egin behar hori betetzen dutela bermatu behar du.

5.4.3. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari aipatu bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete, IIPn ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxieneko aldizkakotasunez. Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko.

5.4.4. Modu berean, zikloko edo ikasturteko azken ebaluazio-bileretan lantzen den informazioa igorriko du. Gutxienez, alderdi hauei buruzko informazioa emango da:

- Etapako eta arloetako helburu nagusien betetze-maila.
- Etapako edo irakasgaietako edukien barneratze-maila.
- Nota partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
- Hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa, beharrezkoa izanez gero.

5.4.5. Txosten horiek, gainera, promozionatzeko edo ikasmaita berean geratzeko erabakia arrazoitu beharko dute. Tutoreak idatziko ditu, irakasle taldearekin eztabaidatu ondoren, eta kontuan izan beharko ditu ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo gai bakoitzari dagozkion irakasleek egindako proposamenak edo txostenak. Txosten horiek, ikastetxean jasoko dira eta hurrengo zikloko edo kurtsoko irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua bideratuko dute, irakasleek ikasgelako programazioak abiapuntu horretatik egokitu beharko dituztelarik.

5.5. ZUZENDUTAKO LANAK, PROBAK ETA ARIKETAK BERRIKUSTEA

5.5.1. Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.

5.5.2. Ikasketaburuak ezarriko du kopiak eskatzeko orriak bete behar duten prozedura. Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna.

5.5.3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da

5.6. ARIKETA ZEHATZEI JARRITAKO KALIFIKAZIOEN AURREAN ERREKLAMAZIOAK EGITEA.



Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik, idatziz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertze eskaerak. Alegazioak edo eskaerak, irakasle bakoitzari aurkeztuko zaizkio eta honek pertsonalki erabakiko du, didaktika-departamentuaren aholkuarekin, egoki baderitzo. Horretarako, kontuan izango du kasu guztietan, curriculum ofizialak eta IIPaz gain, didaktika-departamentuen programazioak, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak duten izaera loteslea.

5.7. EBALUAZIO PARTZIALEN AURREAN ERREKLAMAZIOAK EGITEA.

5.7.1 Ikasleek, ahoz zein idatziz, irakasle beraren aurrean zuzenean edo tutorearen bidez, ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagokion irakasleak erreklamazio guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikulua azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.

5.7.2 Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, didaktika-departamentuaren esku-hartzea eska dezakete. Didaktika-departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz, erreklamazioa egin den modu berean, erantzungo dio.

5.7.3 Ebaluazio partziala tramite hutsezko ekintza denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, departamentuaren irizpidearen aurka irakasleak kalifikazioa mantendu arren. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamazio baten aurrean erabakia hartzeko.

5.8. KALIFIKAZIOAK JUSTIFIKATZEN DITZUTEN AGIRIAK GORDETZEA.

5.8.1 Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.

5.8.2 Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.

5.8.3 Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen bitartean.

5.9. AZKEN KALIFIKAZIOEI BURUZKO ERREKLAMAZIOA.

5.9.1. Azken kalifikazioak argitara eman aurretik, irakasle bakoitzak kalifikazioa berrikusteko saioa deituko du, ikasketaburuak onetsi duen ordutegi batean, eta bertan, irakasleak berak ikasleei banan-banan bere iritziz merezi duten kalifikazioa jakinarazi ondoren, beraien aldeko edo kontrako iritzia jasoko ditu eta, bere irizpide propioari jarraiki, kalifikazio aurreikusia aldatu edo bere horretan utziko du.

5.9.2. Aurreko puntuan zehaztutako saioan, kalifikazioarekin ados ez daudela adierazi eta, hala ere, aintzat hartuak izan ez diren ikasleek, 48 orduko epea izango dute erreklamazioak egiteko, kalifikazioak formalki eman diren unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko dute idazkaritzan. Idatzi horretan, ikasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa; eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.

5.9.3. Ikasleak, halaber, erantsi ahal izango ditu ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak, betiere, ariketa zehatz edo ebaluazio partzial horiek azken ebaluazioko emaitzaren gain eragin izan badute.

5.9.4. Ikasketaburuak erreklamazioa dagokion didaktika-departamentuaren deliberazioaren eraginpean jarriko du eta Didaktika-departamentuak proposatutako probak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ala ez. Bere ebazpenean, irakasleak jarritako kalifikazioarekin bat etorri ala ez, Didaktika-departamentuak kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioetan igorri diren txostenak.

5.9.5. Kontuan izango du, halaber, antzeko baldintzatan egon diren ikasleei irakasleak jarritako kalifikazioak.

5.9.6. Azken ebaluazioaren aurkako erreklamazio batean, ezingo da kalifikazio negatibo bat mantendu klasetako interbentzioetan oinarriturik soilik, salbu eta behar bezain dokumentatuta geratu bada.

5.9.7. Didaktika-departamentuak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.

5.10 DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK HARTUTAKO ERABAKIAREN ONDORIOAK.

5.10.1. Didaktika-departamentuak ikasketaburuari emango dio bere erabakiaren berri eta honek interesdunari helaraziko dio didaktika-departamentuaren erabakia.

5.10.2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendaria, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

5.10.3. Erreklamazio onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendaria kasu horretan hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa eta hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.

6. KONTSERBATORIOKO MATERIALAK ETA AZPIEGITURAK ERABILTZEKO ARAUDI ERREGULATZAILEA.

6.1. JANGELA.

- 6.1.1. Jangela, kontserbatorioko irakasle ez den pertsonalak, ikasleak eta irakasleak bakarrik erabili dezaken azpiegitura bat da.
- 6.1.2. Jangela 16:00 k arte erabili ahal izango da. Ordu horretatik aurrera, irakaslearen berriazko eskaera badago, balioaniztun leku gisa funtzionatu dezake (adibidez: kontzertu ondorengo lunch txiki bat antolatzeke)
- 6.1.3. Pertsona bakoitza arduratuko da erabiltzen den guztia garbitu eta jasotzeaz.
- 6.1.4. Zuzendaritzak, zerbitzu honen erabilpen desegokia egiten duten pertsonen, jangelaren erabilpena ukatzeko eskubidea gordetzen du.

6.2. ARMAIRUAK.

6.2.1. Eskaera egiten duen edozein ikasleak banako armairu bat erabiltzeko eskubidea izango du. Hartarako, dagokion eskaera bete behar izango da ezartzen den epean. Behin eskaera guztiak jasota, hauek armairuak baino gehiago badira, ekingo zaio zozketa egiteari.

Hurrengo taldeak zozketatik kanpo geratuko dira, armairu bat zuzenki esleituz:

- Zentroan matrikulatuta bi anai-arreba edo gehiago dituzten familiak.
- Egoera berezian dauden ikasleak. Egoera hori zuzendaritzak baloratuko du.
- Azken ikasturtean leihatilarik lortu ez zuten ikasleak kontuan hartuko dira. Hartarako, egoera hau eskaeran jarri behar izango da “Kontuan hartzekoak” atalean.

6.2.2. Zozketa. Zozketa atezaindegian egingo da eskaera epea amaitu eta hurrengo egunean. Irakasle ez diren langileen ordezkari bat eta zuzendaritzako kide bat gutxienez aurrean egongo dira. Zozketaren emaitza egun horretan bertan jakinaraziko da.

6.2.3. Giltza-ematea: Giltzaren ematean erabiltzaile berriari 10 €-ko fidantza eskatuko zaio. Diru hau ikasturte amaieran itzuliko zaio behin armairua garbi eta baldintza perfektuetan dagoela egiaztatuz gero. Horrela ez izatekotan ez da itzuliko. Halaber, fidantza hau sarrailearen haustura posibleak, giltza galtzeak ordaintzeko etab.... erabiliko da.

6.3. INSTRUMENTUAK.

Kontserbatorioak mailegurako instrumentuak ditu. Mailegua eskaera bidez egin behar da eta ondoren zehazten diren baldintza batzuen arabera emango da.



6.3.1. Onuradunak:

- a. Oinarrizko irakaskuntzen 1. Mailako ikasleak
- b. Oinarrizko irakaskuntzen gainerako mailetako ikasleak
- c. Instrumentu osagarriko ikasleak
- d. Salbuespenetan ezik, irakaskuntza profesionaletako ikasleei ez zaie instrumentuak utziko

Dauden instrumentuak baino eskaera gehiago dauden kasuetan, instrumentuak esleitzeko zozketa bat egingo da. Beheko mailetako ikasleek lehentasuna izango dute.

6.3.2. Maileguaren arduraduna. Instrumentuak bere kontu dituzten departamentuek espezialitate bakoitzeko arduradun bat izendatuko dute.

6.3.3. Mailegu-garaia. Mailegu-garaia uretebetekoa izango da.

6.3.4. Maileguko tarifa. Urteko 50 €ko kuota ezartzen da. Talde ezberdinetan (orkestra, banda e.a. ...) noizean behin behar diren bigarren mailako instrumentuak (flautina edo piccolo-a, klarinete baxua, saxo baritonoa...) kuota salbuesita geratuko dira.

6.3.5. Mailegurako baldintzak:

6.3.5.1. Instrumentuaren mailegua izaera pertsonal eta besterenezinaz da eta ikasleak eskolako izaerako helburuekin erabiliko du soilik, bere erabilera bese edozein helburutarako hertsiki debekatuta geratuz.

6.3.5.2. Ikaslea eta bere arduradun legala zuzenki arduratzen dira, bere erabilpen eta funtzionamendu egokiaz, hala nola bere mantenu eta kontserbazio egoera perfektuaz ematen zaion unetik itzultzeko garaierarte.

6.3.5.3. Instrumentuak izan duen kaltea notifikatu eta baimena lortu gabe, edozein konponketa debekatuta geratzen da. Akatsen konponketak, desgasteagatik produzitutakoak izan ezik, ikaslearen edo guraso/legezko tutoreen kontura izango dira.

6.3.5.4. Instrumentuarekin batera hornitzen diren material osagarriak, banakako erabilekoa kontsideratzen dena, ahokoak, olioak, kañak, sordinak, e.a. , mailegu-garaia kontratua amaitzean bueltatu beharko dira; galera, higadura edo haustura kasuak ikaslearen kontu joango direlarik.

6.3.5.5. Galera, lapurreta edo hondatze konponezineko kasuetan, sinatutako mailegu-eskaeran azaltzen den instrumentuaren balioari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko da.

6.3.5.6. Kontserbatorioak, instrumentuaren jabe izanik, edozein momentutan berau itzultzeko eskaera egiteko eskubidea dauka, erabakia jakin bezain laister ikasle edo legezko guraso/tutoreei berau bueltatzera behartuz.

6.3.5.7. Mantenu-baldintzak. Maileguaren onuradunak instrumentua eta osagarriak zaintzeko konpromezua hartzen du, eta baita baldintza perfektuetan mantentzekoa. Horretarako irakasleak ematen dituen erabilpen eta mantenurako aholkuak jarraitu beharko ditu.

HARIZKO INSTRUMENTUAK: (Biolin, biola, txelo eta kontrabaxua): behin mailegua lortuta, ikasleak bere erabilpenagatik sortzen diren gastuaz arduratuko da, baita sokak, erretxina... material txikia eskuratzeaz. Zentzu honetan, arkuaren enzerdatzea eta material txikiaren erosketak instrumentua hartzen duen ikaslearen kontu izango da, eta ez uzten duenaren kontu.

Behin mailegua lortuta, ikasleak, gurasoak edo legezko tutoreak egingo ditu soka aldaketak, irakaslearen jarraibideak kontutan hartuz.

HAIZEZKO INSTRUMENTUAK: (flauta, oboea, klarineta, fagota, saxofoia, tronpa, trompeta, tronboia eta tuba): behin mailegua lortuta, ikasleak bere erabilpenagatik sortzen diren gastuaz arduratuko da, baita kañak (zura) , ahokoak (metala)... material txikia eskuratzeaz.

AKORDEOIA: behin mailegua lortuta, uhalak eskuratu behar ezker, ikaslea arduratuko da bere gastuaz. Mailegua gauzatzean instrumentuaren funda ere emango da.

GITARRA: behin mailegua lortuta, ikasleak bere erabilpenagatik sortzen diren gastuaz arduratuko da, baita zejillak, hankekoak, euskarri ergonomikoak...material txikia eskuratzeaz.

Ikasleak, guraso edo legezko tutoreak soken aldaketaz arduratuko dira ere.

6.3.5.8. Instrumentuaren itzultzea. Instrumentuaren itzulera egokitzen da:

- a. Mailegu-garaia amaitzean
- b. Kontserbatorioan ikasketak amaitzean

Harizko instrumentuetan, gainera:

- c. Altuera aldaketagatik

d. Behin-betiko tamainera pasatzean

Ikasleak, guraso edo legezko tutoreak, bere irakasleari emango dio, eta honek instrumentuaren lehenengo azterketa egin ondoren, konpontzeko lutier batengana eraman behar den ala ez erabakiko du (berrikuste honen kostua maileguaren onuradunak ordainduko du). Instrumentua irakasleari bere osagarriekin bueltatuko zaio (arkuak, erretxina...) eta berrikustearen ordainketaren justifikantearekin, eta honek, aztertu ondoren, "Instrumentuen itzulera" tartea sinatuko du emateari oniritzia emanez.

6.3.6. Instrumentuaren erretira. Ikasleari instrumentua erretiratuko zaio honako kasuetan:

- a. Asistentzia falta jarraiak eta justifikatu gabekoak.
- b. Beraren erabilpen txarra
- c. Ageriko hondatzea

Aurreko edozein kasutan maileguaren arduradunak ikastetxeko Idazkariari bidaliko dio txosten bat, eta behin interesatua entzun ondoren, maileguaren erretiratzea erabakiko du edo ez. Instrumentuaren erretiratze honek ez du ekarriko ikasleak ordaindutako zenbatekoa bueltatzea.

6.4. INSTRUMENTU BEREZIAK ALOKATZEKO ARAUDIA.

6.4.1. Bere balio historiko, ekonomiko, antzinatasuneko, izaera minorioagatik edo bestelako ezaugarri espezifikoko edo arraroagatik, eguneroko erabilera ez duten eta guztion eskura ez dauden instrumentuak hartzen dira "Instrumentu berezi" tzat.

6.4.2. Francisco Escudero Kontserbatorioak duen instrumentu katalogoan, horrela hartzen dira, saxofoi baritonoa, klarinete baxua, adar ingelesa, haria-haizea-perkusioko instrumentu jakin batzuek eta Kontserbatorioari egoki iruditzen zaizkion guztiak.

6.4.3. Baldintzak:

6.4.3.1. Kontserbatorioko edozein eskola ekintza edo jarduera osagarriak lehenetsia izango du beti ikastetxearekin zerikusirik ez duenaren aurrean.

6.4.3.2. Alokairu bakoitzagatik instrumentu berri baten 1% kobratuko da.

6.4.3.3. Aseguru baten kontratazioa eskatuko da gainera (multiarriskukoa), instrumentu berri baten zenbatekoa bermatzen duena, erabilezin edo egoera txarrean utzi dezaken edozein gertakizunen aurrean: lapurreta, haustura...

Eskaeran honako alderdiak hartuko dira kontuan:

- Alokairua eskatzeko arrazoia, egunak eta alokairu epea (garraioaren joan-etorriko egunak barne).
- Ze ekitaldi edo egintzarako eskatzen den
- Nork erabiliko duen instrumentua (partikular batek, entitate batek, elkarte batek, e.a.).
- Instrumentuak furgoneta edo kamioieko garraioa beharrez gero, empresa horren izena, eta NIF -a, eta duen aseguru mota (arriko orota aseguru, hirugarrenentzako aseguru, salgai berezietarako aseguru...)

6.5. KONTSERBATORIOKO PIANOAK ERABILTZEKO ARAUDIA.

6.5.1. Isats-pianoen bizitza luzatzeko eta zentruko beste pianoekin batera, beraien mantenua optimizatzeko helburuarekin, honako arauak jarraituko dira:

6.5.1.1. Pianoari eguzkiak zuzenean ematen dionean kortinak itxiko dira eta lainotuta badago ere, BETI itxiko dira gela uzterakoan

6.5.1.2. Instrumentuari eragiten dion edozein kontu atezaintzan komunikatuko da:

- Sokak puskatzen direla eta
- Piano barruan erortzen diren objektuak direla eta: arkatzak, partiturak, klipak...
- Ondo ez doazen teklak...

6.5.1.3. Piano gainean likidoz betetako ontziak uztea debekatuta dago

6.5.1.4. 10., 11., 12., 13., 14., 15., 16. eta 19. geletako isats-pianoetan ikasteko erabiltzeko aukera, Kontserbatorioan 5. eta 6. mailan matrikulatuta dauden ikasleei bakarrik emango zaie. Piano hauek BETI giltzaz itxita geratuko direlarik.

6.6. GUNEAK (GELAK eta ARETOAK).

- 6.6.1. Kontserbatorioko instalazioak honako lehenetsunak jarraituz erabiliko dira:
 - 6.6.1.1. Klaseak emateko eta Irakaskuntzarekin lotuta dauden jardueretarako.
 - 6.6.1.2. Klaseak prestatzeko eta irakasle goaren ikasketa pertsonalerako.
 - 6.6.1.3. Irakasle goaren hezkuntza arretarako ordutegirako.
 - 6.6.1.4. Zentruko ikasleen ikasketa pertsonalerako.
 - 6.6.1.5. Zentruko ikasle-ohien ikasketa pertsonalerako, Goi mailako zentru bateko ikasle diren bitartean.
- 6.6.2. Araudi honetan ezartzen diren baldintzak zentrua indarrean dagoen egutegiaren arabera irekita dagoen ordutegirako dira, irakaskuntza jarduera eta zentruaren ohiko funtzionamenduaren garapen normalaren mende geratzen direlarik.
- 6.6.3. Erabilpen arauak:
 - 6.6.3.1. Eskola-ordutegian inork ezin du klasea eten, behar bezela justifikatuta dagoenean ezik.
 - 6.6.3.2. Azpiegitura erabiltzeko, gelak ala aretoak, Atezaintzan eskatu beharko da giltza, bertan izena eta ordua apuntatuko direlarik. Jaurdera amaitzerakoan, giltza berriro Atezaintzan utziko da, uzteko ordua apuntatuko delarik baita ere. Zentrutik giltzak ateratzea guztiz debekatuta dago. Gela uzten bada (bazkaltzeko, adibidez) Atezaintzan giltza utzi beharko da derrigorrez.
 - 6.6.3.3. Ikasteko zentrua ohiko maiztasunez erabili nahi duten ikasle-ohien kasuan, Atezaintzan eskaera bat egin beharko dute, goi mailako ikasketak egiten ari direla justifikatzen duen dokumentazioa erakutsiz. (ikasle karneta edo matrikula ziurtagiria)
 - 6.6.3.4. Bertan egotean, espazioak ez dira giltzak itxiko inoiz.
 - 6.6.3.5. Erabiltzailea materialaren eta instalazioen erabilera egokiaz arduratzen da. Gelatan jan eta erretzea guztiz debekatuta dago.
- 6.6.4. Gela mailegua honako arauen arabera eta orden honetan lehenetsiko da:
Especialitate bateko gela gai hori egiten duten ikasleentzat lehenetsiko da. Bere espezialitatekoa ez den gela batean dagoen ikasleak, espezialitatekoari utzi beharko dio eta, momentuan balego, ikasteko beste espazio bat eskatu.
- 6.6.5. Arau hauek errespetatzen ez direnean Zuzendaritzak dagozkion neurriak hartuko ditu, erabiltzaileak gelen mailegurako eskubidea galdu dezakelarik.
- 6.6.6. Eskaerak: Eskaera guztiak, erabilerarako eskatzen den data baino 10 egun lehenago gutxienez, Kontserbatorioko Zuzendaritzari egingo zaizkio atxikita doan imprimakia erabiliz eta gutxienez honako informazioa jarri beharko delarik:
 - a. Eskatzaile-arduradunaren datuak.
 - b. Partehartzaileen datuak.
 - c. Jardueraren helburu eta deskripzioa.
 - d. Behar diren lokal eta materialak.
 - e. Jardueraren hasiera eta amaieraren datak eta ordutegia.
 - f. Eskatzailearen NAN fotokopia. Eskaera elkarte, entitate edo organismo baten izenean egiten den kasuetan, bere ordezkari izatearen izaera erakusten duen dokumentua.
 - g. Eskaera baloratzeko oinarri bezela balio dezaketen beste intereseko datuak. Eskaerak Kontserbatorioko Zuzendaritzak ebatziko ditu, jardueraren hasiera baino 5 egun lehenago gutxienez, eta baimena emanez gero, argi jarri zein terminu eta baldintzatan egingo den.
Hala gertatuko balitz, instalazioetan eta bertan dagoen material guztian egindako kalteen kargu, eskatzailea egingo da.
- 6.6.7. Beste jardueren antolaketarako mailegua, dagokion Hezkuntza Ordezkari zuzendutako eskaera bidez egingo da, maiatzak 6eko 76/2008 DEKRETUaren arabera, Euskadiko Elkarte Autonomoko eraikin eta irakaskuntza instalazio publikoen erabilera arautzen duena.

6.7. ERANSKINAK.

- 6.7.1. Armairuen eskaera imprimakia.
- 6.7.2. Instrumentuen eskaera imprimakia.
- 6.7.3. Instrumentuen maileguaren baimena.
- 6.7.4. Gela eta aretoen eskaera imprimakia.

7. AJA BERRIKUSTEKO PROZEDURA.

Araudi honen berrikustea OOG-ri dagokio, honakoen ekimenagatik:

- a. Bizikidetzatza batzordea.
- b. Zuzendaritza taldea.
- c. Irakaslegoaren heren batek gutxienez.
- d. Ikasleriaren 20% gutxienez edo taldetako ordezkari gehiengoak.
- e. Guraso elkarteak.
- f. Gurasoen edo legezko ordezkarien 10% gutxienez.
- g. Administraritzatza eta zerbitzuetako pertsonalaren heren bat gutxienez.

AJA ren onespenerako edo bere aldaketak egiteko, arauzkoa da OOG-ren gehiengo absolutua, aurretik Irakasle Klaustroa entzunda.

8. AZKEN XEDAPENA: AJAREN HEDAPENERAKO PROZEDURA.

8.1. Tutoretzak esleituta dituzten irakasleak, bere ikasleen artean araudi honen hedatzea modu eraginkorrean egiteaz arduratuko dira. Halaber, Eskola Kontseiluak gainontzeko hezkuntza komunitatean emango dio ahalik eta hedapen handiena ere.

8.2. Ikastetxeak, dokumentu honen hedapenerako, Hezkuntza Komunitatearen sektore ezberdinetan komunikabide,, partehartze eta informazio moduak erraztuko ditu.

8.3. Araudi berri hau indarrean egongo da OGGk onartu eta hurrengo egunean. Ikastetxeko bizitzan erlazioak ezartzen dituen markoa denez, bete egin behar da.



ERANSKINAK

Eskaera zenbakia Nº de préstamo	INSTRUMENTUEN MAILEGUA PRÉSTAMO DE INSTRUMENTOS
--	--

ESKAERA SOLICITUD

Ikaslearen Abizenak - Izena Apellidos y nombre del alumn@			
Lehen instrumentua Instrumento principal		Kurtsoa Curso	Gradua Grado
Helbidea Dirección			
Herria Población		Herrialdea Provincia	
N.A.N. D.N.I.		P.K. C.P.	
Telefonoa Teléfono		E-mail:	

INSTRUMENTUA INSTRUMENTO

Eskatutako instrumentua Instrumento solicitado	
Eskatutako osagarriak Accesorios solicitados	
Irakaslea Profesor-a	

Eskaeraren arrazoi zehatzak Motivo detallado de la solicitud

--	--

Data / Fecha	Sinadura / Firma <i>Ikaslea edo aita/ama/tutorea, (adin txikikoa bada)</i> Alumn@ o padre/madre/tutor@ (si es menor de edad)
---------------------	---



<p><i>Gainean sinatzen duenak konpromisoa hartzen du maileguan utzitako instrumentua egoera onean adierazitako egunean itzultzeko eta maileguaren baldintzak ezagutu eta onartzen dituela baieztatzen du.</i></p>	<p>El/la arriba firmante, se compromete a devolver el instrumento prestado en buen estado en la fecha prevista y afirma que conoce y acepta las condiciones del préstamo.</p>
<p><i>Instrumentuen mailegua IKASTURTE BATERAKO izango da. Urteko 50 euroko kuota bat ezartzen da.</i></p>	<p>El préstamo del instrumento se hará por UN curso escolar. Se establece una cuota anual de 50 euros.</p>
<p>Kontu zkia / N° Cuenta: ES05 2095 0611 04 1062136444</p>	<p><i>Kontzeptuan, ikaslearen izena ipini</i> En Concepto, indicar el nombre del alumn@</p>



Eskaera zenbakia Nº de préstamo	BAIMENA AUTORIZACIÓN		
<i>Donostiako "Francisco Escudero" Musika Kontserbatorio Profesionalak eskaeran agertzen den ikasleari, hurrengo instrumentuaren mailegua onartzen du:</i>	El Conservatorio Profesional de Música "Francisco Escudero" de Donostia accede al préstamo del siguiente instrumento al alumno@ detallado en la solicitud y que se trata de:		
Ikaslearen Abizenak - Izena Apellidos y nombre del alumno@			
INSTRUMENTUA		INSTRUMENTO	
Modeloa-Marka Modelo-Marca			
Erreferentzia Referencia			
Instrumentuaren balorazioa Valoración del instrumento			
Instrumentuaren egoera Estado del instrumento			
Mailegutako osagarriak Accesorios prestados			
Irakaslea Profesor-a			
Maileguaren data Fecha del préstamo		Noiz itzuli behar den Fecha obligada de devolución	

Ikaslea edo aita/ama/tutorea, (adin txikikoa bada)
Alumn@ o padre/madre/tutor@ (si es menor de edad)

Irakaslea / Profesor@

Irakasleak sinatutakoan eskaera idazkaritzan entregatu

Una vez firmado por el profesor@ entregar la
solicitud en secretaría



INSTRUMENTUEN ITZULTZEA

DEVOLUCIÓN DE INSTRUMENTOS

Gaur itzuli dio behean adierazitako irakasleari, Kontserbatorioak maileguan utzitako instrumentua.

Devuelve en el día de hoy al profesor@ abajo indicado, el instrumento que el Conservatorio le ha prestado.

Instrumentu eta osagarrien egoera (irakasleak betetzeko) / Estado del instrumento y accesorios (a rellenar por el profesor@)

Irakaslearen izena eta sinadura

Nombre y Firma del profesor@

Data / Fecha

Sinadura / Firma

Irakaslea / Profesor@:



ESKAERA INPRIMAKIA (ARMAIRUA) Eskaera zenbakia:.....

ESKATZAILEAREN DATUAK
Izen abizenak NAN
Gorde nahi duzun instrumentua:
Izanez gero, anai-arreben izenak:
Anai-arreben instrumentuak:
Helbidea
Tfno.: Posta elektronikoa
Nahi duzun armairu neurria: normala <input type="checkbox"/> handia (*) <input type="checkbox"/>
<i>(*) 12 armairu handi egonik, hauek instrumentu handiak (tronboia, txeloa,...) dituzten ikasleei edo kontserbatorioan ikasten anai-arreba gehiago izan eta zenbait instrumentu gorde behar duten familientzat izango dira.</i>
OHARRAK
Hurrengo taldekideei armairu bat zuzenean esleituko zaie, zozketatik kanpo geratuko direlarik: <ul style="list-style-type: none"> a. Zentroan matrikulatuta bi anai-arreba edo gehiago dituzten familiak. b. Egoera berezian dauden ikasleak. Egoera hori zuzendaritzak baloratuko du c. Aurreko ikasturtean armairurik lortu ez duten ikasleak. Horretarako, eskaera honetako "kontutan hartzekoak" atalean hori zehaztea gomendatzen da. <p>Zozketa atezaindegian eskaera epearen amaieraren biharamunean egingo da. Irakasle ez diren pertsonala eta zuzendaritza taldeko kide bana egongo dira. Zozketaren emaitza egun berean jakitera emango da.</p>
KONTUTAN HARTZEKOAK
ARDURA KONPROMISOA
Giltza ematean 10 €ko fidantza eskatuko zaio erabiltzaile bakoitzari. Diru hau ikasturte amaieran itzuliko zaio armairua baldintza egokian utzi duela baieztatu ondoren. Horrela ez balitz, fidantzako diru hori balizko haustura, giltza berri edo konponketa ordaintzeko erabilia izango litzateke.

Donostian,

Eskatzailea, sinadura:



ESKAERA INPRIMAKIA (ARETOAK)

ESKATZAILEAREN DATUAK
Izen abizenak NAN
Helbidea
Tfno.: Posta elektronikoa
JARDUERA
Jardueraren deskribapena
.....
Hasieraren data eta ordua
Amaieraren data eta ordua
Parte hartzileak
BEHARRAK
ARDURA KONPROMISOA
<p>Azaldu dudan jardueraren arduraduna naizenez, instalazioak behar duen zainketa, mantentze eta garbitasunaren arduradun egingo naiz, aurkitu dudan bezalaxe utziz.</p> <p>Bestalde, 76/2008 DEKRETUA, maiatzaren 6koa, Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-erakin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden jardueretarako erabiltzeko prozesua arautzen duenaren arabera, hala balitz, nire jardueraren ondorioz instalazioetan edo materialetan sortutako kalteak ordainduko dizkiot "Francisco Escudero" kontserbatorioari.</p>

Donostian,

Eskatzailea, sinadura: